KULTURA: ‘OLIVER!’ IKUSKIZUNA, KURSAALEN ETA BALUARTEN /7

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 137. zenbakia

DOAN BANATZEKOA • 2003ko abenduaren 26a • IV. urtea

PERNANDO BARRENA / BATASUNEKOA

“Madrilgo erasoen aurrean, garaia da abertzaleon arteko elkarlanaz hitz egiteko” /10

European Newspaper AWARD
Goienkaria
ONDOEN DISEINATUTAKO TOKIKO AGERKARIA EUROPAN

ARGAZKI-KRONIKA: DEBAGOIENEKO HERRIETAKO GABONETAKO IRUDIAK /6-7

ASTEKO GAIA: EUROAK, BI URTE GURE ARTEAN /3

Poltsikoak ondo igarri du aldaketa

Pezetetatik euroetara aldaketa egin genuenetik hona bi urte beteko dira egunotan, eta gainbegiratu batek erakusten digu debagoiendarrok oraindik ez garela moneta berrira ohitu. Adituen iritziz, gainera, luze joko du normaltasunera iritsi arte. Argi duguna da prezioak asko igo direla euroaren eraginez: batik bat, aisialdi eta ostalaritza produktuek egin dute gora.

Oso harrera ona izan du ‘Asteleheneko Goienkaria’-k

Oso harrera ona izan du *Asteleheneko Goienkaria*-k, oraingo astelehenean, abenduak 22, etxez etxe Debagoienean doan banatu duten agerkariak. Jendeari asko gustatu zaio; horixe da, behintzat, jendeak azaldu duena *goiena.net* Interneteko atarira eta GOIENKARIAko erredakziora bidalitako mezuetan. Gainera, hasi dira harpideak egiten, ibarreko herri guztietan. Harpidetza kanpaina hasi besterik ez da egin. Badakizue oso erraza dela harpide egitea, eta gainera, merezi duela: 25 euro urtean *Asteleheneko Goienkaria* astero etxean jasotzearren eta lau ipuinez osatutako liburua opari. /5

Sariak debagoiendarrendako

Debagoiendarrak protagonista izan dira egunotan. Izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako hiru sari jaso dituzte gure ibarreko pertsona edo erakundeek. Batetik, Juan Zelaia enpresaburu oñatiarrari Gipuzkoako Urrezko Domina eman diote. Bestetik, Oñatiko Aloña Mendi kirol elkarteari Gipuzkoako kirol elkarte onenarena. Eta,Antzuolako Elay enpresari Anton Abbadia saria eman diote. /7

JUAN JESUS ALBERDI / ELAY
Anton Abbadia saria

Lantegia euskalduntzeko egindako lanagatik eman diote saria. Euskara Plana 1992an ezarri zuten eta ia langile guztiek dakite euskaraz.

ANTON INTZA / ALOÑA MENDI
Gipuzkoako kirol elkarte onena

Mende erdi baino gehiagoko lanaren aitorpena jaso du sari horrekin Oñatiko elkarteak, Gipuzkoako beste hainbat kirol elkarteren eredu denak.

JUAN ZELAIA / ENPRESABURUA
Gipuzkoako Urrezko Domina

Lanaren eta ahaleginaren kulturan eredu izateagatik eta enpresa alorretik aberastasuna eta enplegua sortzen laguntzeagatik jaso du saria.

URTE BERRI ON!

GOIENKARIA egiten dugunok oporrak hartuko ditugu ondorengo egunotan. Hortaz, datorren egubakoitzean ez duzue aldizkaririk jasoko. Hurrengoa urtarrilaren 9an jasoko duzue.

GAZTE MODA
LEIZE LZE
urteberrion!
Secundino Esnaola 13 DONOSTIA
Fraiskozuri 5 BERGARA
Olarte 5 ARRASATE



DEBAGOIENA/4-7 • IRITZIA/8 • GOIENKA2A/13 • KULTURA/15 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • ESKELAK/19 • DENBORA-PASA/20 • TELEBISTA/22

MARKULETE
INDUSTRIALDEA



S-3 SEKTOREA

E-45 PARTZELAK

ARRASATE

Tel.: 943 79 62 80

Faxa: 943 79 76 19

debagoiena@industrialdea.spri.es





BEHEKO SOLAIRUA	Eraikitako Eremua
13.	1592,35 m2
14.	336,72 m2
15.	305,73 m2
16.	298,20 m2
17.	298,20 m2
18.	298,20 m2
19.	298,20 m2
20.	298,20 m2
21.	298,20 m2
22.	900,28 m2

BEHEKO SOLAIRUA	Eraikitako Eremua
23.	668,51 m2
24.	264,66 m2
25.	277,87 m2
26.	566,15 m2
27.	350,65 m2
28.	371,45 m2
29.	392,75 m2
30.	901,55 m2
31.	1264,85 m2
GUZTIRA	**9982,49 m2**

1. SOLAIRUA	Eraikitako Eremua
1.	906,66 m2
SOLAIRUA	823,65 m2
SOLAIRUARTEA	83,01 m2
2.	497,18 m2
SOLAIRUA	332,75 m2
SOLAIRUARTEA	164,43 m2
3.	338,14 m2
SOLAIRUA	305,86 m2
SOLAIRUARTEA	32,28 m2
4.	306,52 m2
SOLAIRUA	287,10 m2
SOLAIRUARTEA	19,42 m2

	Eraikitako Eremua
5.	306,52 m2
SOLAIRUA	287,10 m2
SOLAIRUARTEA	19,42 m2
6.	306,52 m2
SOLAIRUA	287,10 m2
SOLAIRUARTEA	19,42 m2
7.	306,52 m2
SOLAIRUA	287,10 m2
SOLAIRUARTEA	19,42 m2
8.	306,52 m2
SOLAIRUA	287,10 m2
SOLAIRUARTEA	19,42 m2

	Eraikitako Eremua
9.	306,52 m2
SOLAIRUA	287,10 m2
SOLAIRUARTEA	19,42 m2
10.	306,52 m2
SOLAIRUA	287,10 m2
SOLAIRUARTEA	19,42 m2
11.	306,52 m2
SOLAIRUA	287,10 m2
SOLAIRUARTEA	19,42 m2
12.	306,52 m2
SOLAIRUA	287,10 m2
SOLAIRUARTEA	19,42 m2
GUZTIRA	**4492,39 ,2**

DEBAGOIENEKO INDUSTRIALDEA, S.A.

Gipuzkoako Foru Aldundia

SPRILUR

ARRASATEKO UDALA

BERGARAKO UDALA

OÑATIKO UDALA

Aretxabaletako Udala

Euroaren bi urteotan, gure poltsikoak sumatu du aldaketa

Salneurri guztiek egin dute gora; batik bat, ostalaritzak, okindegiak eta postak

LEIRE KORTABARRIA

Egunotan eman dute horren berri komunikabideek: euroa gurean dagoenetik, Gaboneta-ko menua %24 garestitu da.

Bigarren urteurrena egingo du euroak gurean, eta 2000. urteko bukaeran, moneta berria iritsi aurretik, plazaratu ziren beldurrek arrazoia zutela baieztatu du errealitateak. Debagoiendar askoren ahotan dago honako komentarioa: lehengo 5.000 pezetak ez direla gaur egungo 30 euroren baliokideak. "Lehen, 5.000 pezetarekin lasai irten zintezkeen kalera. Orain, 30 eurorekin ez zoaz inora ere; gutxienez 60 eraman behar dituzu", diosku debagoiendar batek.

L.K.

Ibarrekook prezioen igoeraz jabetu bagara ere, kontsumoak ez du beherakadarik izan.

OGIA, ZINEMA, POSTA...

Euroaren etorreraren ondoren, igoera handiena izan zuten sektoreak hauek izan ziren: posta zerbitzuak, okindegiak, zinemak eta kafetegi eta tabernak. Kasu batzuetan, tabernen kasuan, 2001eko abenduaren eta 2002ko urtarrilaren artean onartu zuten prezio igoera, eta ordutik hona ez dituzte berriro prezio horiek aldatu. Ibarreko tabernari batek onartzen digunez, "orduan igoera altu samarra izan zen, eta ordutik erabaki genuen ez igotzea".

Tarifa publikoek ere igoera handiak izan dituzte. Ikus dezagun posta zerbitzuen kasua. 2000ko abenduan, Estatuko edozein lekura gutun bat bidaltzea 35 pezeta kostatzen zen; hilabete geroago, 40 pezeta kostatzen zen, 0,24 euro.

Kasu askotan, garestitzearen arrazoia da aldaketa, bere momentuan, ez zela ondo egin; baina, beste askotan, etengabeko biribiltze-eskalada izan da. Horren eragina izan da, adibidez, ogi txiki batek 76 pezetatik 0,75 eurora pasatzea (124 pezeta); edo edozein jatetxetan, eguneko menuak 900 bat pezetatik 7 edo 8 eurotarako salto ikusgarria egin izana. Eguneroko produktu batzuek, beharrezko direla-eta, garestitze harrigarriak izan dituzte: olio marka ezagun baten botila 390 pezeta kostatzen zen, eta 100 pezeta baino gehiagotan garestitu da salneurria ordutik hona.

Zinemara joatea ere ez da askoz merkeagoa: Debagoienean, zinemarako sarrera bat 550 pezeta kostatzen zen 2000n, eta gaur egun ia 100 pezeta garestiagoa da.

PENTSATU BARIK ORDAINDU

Baina inor gutxi gogoratzen da, ordaintzerako unean, kafesnea 125 pezeta edo garagardoa 175 pezeta kostatzen zenean; ibarreko erosle batek zera dio: "Prezioa ikusten duzu eta lasai asko ordaintzen duzu, pezetatan zegoenean baino garestiago dagoen pentsatu barik". Hortaz, prezioak igo edo ez, ibarrekook orain arteko antzeko gastuengatik gustura ordaintzen jarraituko dugula dirudi.

Gabonak, 832 euro

Gabonetan egiten da gastua inoiz baino nabarmenago. Ikerketen arabera, aurtengo Gabonetan, batez beste, 832 euro (iaz baino %4 gehiago) ari gara gastatzen Estatuan, eta hori, Gabon-efektua –gehiago gastatzea, alegia– alde batera utzita. %4ko igoerak, hortaz, euroaren etorreran du zergatia, elkarteon ustez.

Jaten eta edaten gastatzen ari gara gehien: 200 euro, iaz baino %8 gehiago. Okela-denda bateko arduradunak esan digunez, "jendeak iaz baino gehiago begiratzen die prezioei". Bestalde, prezioen igoera izan arren joera orokorra, Gabonetako promozioei esker hainbat produktu pezetatan zeudenean baino merkeago erosteko aukera dugu; hala gertatzen da cavekin eta likoreekin.

Aisialdian 120 euro gastatuko ditugu; nahiz eta inpresioa den sektore horretako prezioak igo direla gehien, kontsumitzaileek diote saihestu ezineko gastuak direla askotan. Loterian, aurten, bakoitzak 112 euro gastatu ditugu, prezioa %10 igo den arren.

MIGEL ANGEL INTZA / AURREZKI KUTXAKO BULEGOKO ZUZENDARIA

"Urte asko behar izango ditugu eurora ohitzeko"

Kutxako Oñatiko bulegoko zuzendaria da Migel Angel Intza. Berak gertutik ikusi izan ditu herritar askoren kezkak euroaren gainean, eta horren inguruan berba egin dugu berarekin.

Bi urte pasatu dira euroa gure artean dagoenetik. Zein da zure bezeroongan sumatu duzun inpresioa?

Nik ikusi dudanez, jendeak, eta jende nagusiak,batez ere, gehiago gastatzen duen inpresioa du. Kexu dira diruak gutxiago irauten diela, eta horrek egonezina sortzen die. Sentsazio hori oso orokorra da.

Prezioen igoerarekin zerikusia izango du horrek, bada?

Ez hainbeste, ez. Jendeak ez dio hainbeste begiratzen prezioak igo ote diren edo zenbat igo diren. Askok egin duten berdinketa izan da euro bat ehun pezeta direla, eta horrela erabiltzen dute; baina 5 euro ez dira 500 pezeta, 800 baizik. Nagusiendako, batez ere, zerbait "300" kostatzen dela ikustean, zaila egiten da horren benetako balioaz konturatzea.

Bezerook eurotan ala pezetatan egiten dute berba?

Pezetatan, duda barik. Batzuek durotan ere hitz egiten dute! Aurrezki kutxako langileon artean ere, gutxitan egiten dugu berba eurotan. Aurrezki kutxako informazioa, hainbat kasutan, oraindik bietan ematen dugu. Askotan, 300 euro, 600 euro... pezetatan zenbat diren badakigu buruz, baina milakoekin zaila egiten zaigu.

Aldatu da jendearen jokaera diruarekiko? Adibidez, gutxiago inbertitu edo arriskatu...

Ez, alde horretatik ez da aldaketa nabarmenik egon.

Eta dolarrarekiko aldaketa berriarekin, etorri da inor dolarrak erostera?

Banaka batzuk etorri zaizkigu, bai. Hala ere, aldaketak oso handia izan behar du irabaziak izateko. Zentimo gutxi batzuen aldearekin, ez dago apenas irabazirik.



Migel Angel Inza.

Inor etorri da oraindik pezetak aldatu nahian?

Egon da horrelako kasurik ere, bai. 5.000 pezetako billeteekin-eta etorri izan dira, gutxi erabilitako arropetako poltsikoetan-eta aurkituta...

Oraindik ohitu ez bagara, noizko, zure ustez?

Oso zaila izango da guztiondako eurora ohitzea. Gazteak errazago moldatuko dira, baina eurei ere kostatu egingo zaie. Urte asko behar izango dira. Izan ere, pezetak erabiltzen genituenoi, oso aldaketa zaila egokitu zitzaigun: 166,386. Beste herri batzuetan, berriz, aldaketa errazagoa izan dute.

I.A.

Udalaren jarrera salatzeko prentsaurrekoa egin zuten herri mugimenduetako ordezkariek Bergarako gaztetxean.

Herri mugimenduetako taldeek isuna ordainduko diote Bergarako Udalari

Jaietan txosna baimen barik ipintzeagatik 360 euro ordainduko dituzte

IRATI AGIRREAZALDEGI

Bergarako herri mugimenduetako talde eta elkarteek San Martin jaietan txosna jarri zuten Munibe plazan, baimen barik. Hori dela eta, Udalak 360 euroko isuna jarri die. Herri mugimenduetako talde eta elkarteetako kideek Udalaren jarrera salatu dute.

Bergarako herri mugimenduetako kideek txosna batzordea osatu eta uztailaren 15ean eskatu zioten Udalari San Martin jaietan txosna jartzeko baimena. Joan zen asteleheneko osoko bilkuran alkateak ukatu egin zuen baimena eskatu zutenik; txosna batzordeak adierazi du hori gezurra dela frogatzeko moduan daudela.

Uztailaren 29an ezetza jaso zuten eta egoera aztertzeko negoziazio mahaia proposatu arren, herri mugimenduetako kideen arabera ez ziren Udaleko ordezkariekin elkartu. Azkenean, irailean jaso zuten Udalaren ezezko erantzuna.

GIROA SORTZEA HELBURU

Baimenik ez izan arren, jaietan Munibe plazan txosna jartzea erabaki zuten batzordea osatu zuten zazpi taldeetako kideek. Txosna euren diru iturri bakarrenetarikoa izateaz gain, herrian giroa sortzea zen euren asmo nagusia.

Isuna ordaintzeko dirua lortzeko 10 euroko laguntza bonoak jarriko dituzte salgai

Ez zitzaien ez merke atera erabakia. Izan ere, urrian Udalaren zigorra jaso zuten: 360 euroko isuna, hain zuzen ere.

Horri aurre egiteko herri mugimenduetako kideek kanpaina txiki bat ipini dute abian. Laguntza bonoak jarriko dituzte salgai herriko tabernetan, 10 euroren truke eskuratu ahal izango dira txartelak, eta euren asmoa da isunaren zati bat behintzat ordaintzeko dirua eskuratzea.

TXOSNA BERRIZ ERE

Urtarrilaren 5ean, errege egunaren bezperan, txosna jarriko dutela jakinarazi dute herri mugimenduetako kideek prentsaurrekoan, baina oraingoan, Udalaren baimenarekin.

Oñatiko Arrikrutzeko kobetan oraingo astean hasi dituzte lanak

Obrek urte eta erdi iraungo dutela zehaztu dute lanon arduradunek

I.A.

Oraingo astean hasi dira Arrikrutzeko kobetan obrak egiten. Ingurua dagoeneko garbitu dute eta aurki bidea egiten hasiko dira. Lanek urte eta erdi inguru iraungo dute.

Ingurua garbitzen ibili ostean langileak aurki ekingo diete bidea zabaltzeko lanei. Izan ere, makinak sartu ahal izateko 300 metroko tartean ireki behar dute bidea.

Kobaren sarrera egongo den tokian geotekniako ikerketak eta indusketa arkeologikoak egingo dituzte, eta horretarako eta lurra bera aztertzeko makinak behar direnez, horiek pasatzeko bidea egin behar da lehenengo. Bidearen hasieran harrera-leku bat jarriko dute, bisitariendako.

SARRERA

Lan horiek proiektuaren lehengo fasean kokatu dituzte eta, obrak egiteaz gain, sarrera non kokatuko den ere erabakiko dute. Barruko zein kanpoko instalazio osoa zehaztuta dagoen arren, oraindik ez dakite sarreraren toki zehatza zein izango den.

Ikerketa arkeologikoak baliagarriak izango dira hori erabakitzeko. Izan ere, gune horretan zein material dagoen eta zelan tratatu behar den esango dute.

Proiektuak lau fase ditu, eta asteon hasitako lanek urte eta erdi iraungo dutela esan dute lanon arduradunek.

DEBAGOIENEAN LABUR

Aramaioren gaineko erreportaje berezia argitaratu du 'Pyrenaica' mendi aldizkariak

Aramaiori eskaini dio *Pyrenaica* mendiko aldizkariak azken zenbakiko erreportaje nagusia. *Aramaio goitik eta barrutik* izenburupean hamaika orrialdeko erreportaje mardula prestatu du Juan Mari Antsak. *Arabako Suitza* da Aramaio, Antsaren esanetan, eta hori gai hartuta prestatu du lan hori, argazki askorekin hornituta. Mendian ibiltzeko mapak ere jaso ditu.

PSOEk ez du Arrasateko udal aurrekontua onartu eta PPk 22 emendakin aurkeztu ditu

Gaur, barikua, urteko azken osoko bilkura egingo dute Arrasateko udaletxean. Bertan, besteak beste, 2004ko udal aurrekontua aurkeztuko dute. Aurrekontuaren gaiak sortu du ika-mikarik. Izan ere, PPk 22 emendakin aurkeztu ditu, arrazoituta Udalak ez dituela oposizioko alderdiak kontuan hartu aurrekontua egiterakoan. PSOEk, berriz, oso-osorik egingo dio uko aurrekontuari.

Gas barik geratu zen Elgeta erdi martitzen goizean, obretan hodi bat apurtu zen-eta

Martitzen goizean Elgeta erdi gas zerbitzu barik geratu zen. Torrealdeko etxebizitzetarako bidea egiten diharduten langileek hodi bat apurtu zuten, antza, eta horren ondorioz, Torrealdean, Gudarien bidean, Berraondokuan, eta Salbador kalean dauden eraikin guztiak gas barik utzi zituzten. Berehala konpondu zuten matxura eta eguerdirako elgetarrak gasa erabiltzeko moduan izan ziren.

Egunean 6.000 auto inguru pasatu dira Eibar-Gasteiz autobideko lehen zatitik

Joan zen asteburuan zabaldu zuten Eibar eta Gasteiz arteko autobidearen lehen zatia. Lehen egunean 2.000 ibilgailu inguru pasatu ziren. Bidelaneko zuzendariak oraindik datuak emateko goiz dela esan duen arren, euren aurreikuspenak bete egin dira. Izan ere, egunean 6.000 ibilgailu pasatzea zen euren asmoa eta kopuru horretatik gertu ibili dira astelehenetik aurrera. Dena dela, kontuan hartu behar da bi eguneko datuak baino ez direla horiek.

ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Zapatu goizean inauguratu eta eguerdian ireki zuten autobidea.

San Silvestre lasterketa izango da Gabon zahar egunean Oñatiko kaleetan

Datorren abenduaren 31n, Gabon zahar egunean, XII. San Silvestre lasterketa izango da Oñatin. Arratsaldeko 17:00etan hasita, herriko kaleetan 8.400 metroko ibilbidea egin beharko dute; 16 urtetik beherakoek, berriz, erdia. Lasterketa amaitzen duten guztiek Gabonetako otar baten zozketarako txartela jasoko dute.

Presoen aldeko hainbat ekimen antolatu dituzte ibarrean Gabon egunetarako

Ibarreko herrietan presoen aldeko ekimenak izango dira Gabonetan. Martutenerako martxa antolatu dute 28rako Bergaratik. Bestalde, abenduaren 31n, afalostean brindisak egingo dituzte presoen alde. Manifestazioak eta kale bilkurak ere egongo dira Bergaran, esaterako, urtarrilaren 2an eta 5ean. Eta gaiarekin lotutako argazki erakusketak egongo dira ikusgai Arrasaten eta Aramaion. Gainera, urtarrilaren 3an Bilbon izango den manifestazio nazionalerako dei egin dute presoen aldeko ekimenetakoek.

Oso harrera ona egin dio jendeak orain arte GOIENKARIA berriari

OLAIA MONDRAGON

Mondragoetarrak ere *Asteleheneko Goienkaria*-rekin.



ANDER GILLENEA

Jende asko harpidetu da orain arte eta ikusmin handia sortu du egitasmoak.

ANDER GILLENEA

Arrasateko Santamas ferian, eskuetatik kentzen zieten banatzaileei.

AINTZANE GARDOKI

Jakin-mina ase nahian.

AINTZANE GARDOKI

Edozein momentu eta toki da egokia gainbegiratua egiteko.

AINTZANE GARDOKI

Eskoriatzako gasolindegian ere bai.

DISEINUA

Askok nabarmendu dute GOIENKARIA berriaren diseinu erakargarria

GOIENKARIAk hasiera-hasieratik egin zuen apustu diseinua eta maketazioa, hau da, itxura zaintzearren. Hortik etorri da, esaterako, diseinurik onena daukan Europako tokiko agerkaririk onenaren saria, berriki eman diotena. Bada, *Asteleheneko Goienkaria*-k ere ildo beretik segitu du eta, aurrekoa bezala, Goio Arana mondragoetarrak diseinatu du. Asko izan dira periodiko berriaren itxura nabarmendu dutenak. Prentsa idatzian aditu direnek eta baita herritar arruntek ere azpimarratu dute hori.

HARPIDEAK

50.000 esku-orri banatu dituzte harpidedun egin nahi dutenendako

Harpide egitea oso erraza da. Nahikoa da periodikoarekin batera, barruan, banatu zen esku-orria bete eta postontzira botatzea. Esku-orri hori Debagoieneko hainbat toki publikotan (taberna, kiroldegi, kultura etxe...) ere izango da eskura. Badaude harpide egiteko beste modu batzuk: telefonoz deitu eta datuok ematea (902 36 38 51) edo faxez bidaltzea esku-orria (943 79 22 93), edo *goiena.net* webgunean dagoen fitxa betez, edo mezua bidaliz e-postaz, honako helbidera: *astelehenekoa@goiena.com*.

BANAKETA

Arazo txikitxo batzuk herri batzuetan, baina oro har, ondo

***Asteleheneko Goienkaria* joan zen astelehenean banatu zuten Debagoieneko etxe guztietan. Goizean goizetik hasi ziren banaketa egiten. Baina herri batzuetan –Bergaran eta Antzuolan– arazo batzuk tarteko goizean izan barik arratsalde-iluntze partean jaso zuen etxean hainbatek. Edozelan ere, egunean bertan ia etxe guztietan zen. 23.000 ale banatu zituzten etxez etxe. Horrez gainera, Arrasaten ere banatu zituzten kalean 2.000 ale, goizean zehar. Eguerdirako agortuta zeuden.**

Zer diote irakurleek?

Hona hemen *goiena.net* Internet atarian jasotako iritzi batzuk *Asteleheneko Goienkaria*-ren gainean.

Ondo. Oso ondo dago. Orain-txe harpidetu naiz ni web orri honetatik. Baina ez dut eman kontu korronte zenbakia. Espero dut deituko didatela.
Aitor Etxenike

Oso argitalpen mardula da, eta oso konpletoa. Ez du beste egunkari edo astekari batzuen inbidiarik. Oso ondo egina iruditu zait. Debagoiendarrok merezi ditugu GOIENKARIA eta Goienkari berria bezalako produktuak.
Esther (Oñati)

Zelako ona. Gauza asko eta ondo. Noizko eguneroko GOIENKARIA?
Mikel E.M.

Gustatu zait, asko gainera. Etxean erabaki dugu harpide egitea eta joan naiz GOIENKARIAko egoitzara eta egin naiz harpide. Gustatu zait batez ere kiroleko tartea, ze eskola kirolaren gaineko orrian nere koadrilakoak agertzen dira.
Maialen (Bergara)

Santamas egunean goizean goiz jaso nuen etxean *Asteleheneko Goienkaria*. Itxura benetan ona. Argazki askorekin eta irakurterraza. Sagardo batzuk edateko bildu ginen lagun eta familiartekoen artean ere hau izan zen komentarixo orokorra. Gustoko produktua!
Igor

Zelako polita den. Dagoenik agerkaririk politenetakoa. Goio Aranak sekulako lana egin du diseinuarekin, beste behin. Oraingoan ere asmatu du.
Miren

Aurkitu duzue merkatuan hutsunea eta asmatu duzue produktuarekin. Debagoieneko asteburuak beteak dira eta argitalpen bat sortu duzue propio hori jasotzeko. Ez dago hurbiltzen denik ere. Hori gutxi balitz, zenbakia ona da, edukiz eta itxuraz. Ni ere harpidetu naiz.
Mikel Irizar

Gustatu zait. Ez zaidana gustatu da hain berandu heltzea etxera. Ezin naiz kexatu ez baitut ordaindu. Gustatuko litzaidake lehenago heltzea etxera. Eskerrik asko egiten duzuen lanarengatik.
Mikel

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2003ko abenduaren 26a

Gabonetako berri zakua

OLENTZERO HERRI GUZTIETARA Ibarreko herrietara ere heldu zen Olentzero abenduaren 24an. Batzuetan, lehenago. Esaterako, Elgetan bezperan etorri zen. Gabon egunean Gabon kantak abestu zituzten toki askotan.

SANTAMAS KOMISIÑUEN ALDE Arrasateko Santamas feriak irudi asko utzi dizkigu. Baina ezohikoena izan da Udalaren eta azken urteotan jaiok antolatu dituen Santamas Komisiñuen artean sortutako ika-miken ondorioz sortutakoa: pankartak eta zapiak "herri-jaien alde".

ARETXABALETAN ERE SANTAMASAK Aretxabaletako erretiratuek batera ospatu zuten astelehenean Santamas eguna eta Gabonetako festa aurreratua. Urtero moduan, hainbat opari zotz egin eta txistorra pintxoak banatu zituzten Basotxon.

GIPUZKOAKO URREZKO DOMINA Iñaki Gabilondori, Jose Maria Setieni eta Juan Zelaia enpresaburu oñatiarrari (argazkian, diputatu nagusiarekin) Gipuzkoako Urrezko Domina eman zien martitzenean Foru Aldundiak. Euskararen eta kulturaren alde egindako lanagatik eman zioten saria Juan Zelaiari. Bestalde, Diputazioak Debagoieneko beste bi erakunde ere saritu ditu: Antzuolako Elay enpresari Anton Abbadia saria eman diote, lantegia euskalduntzeko egiten diharduen lanagatik, eta Oñatiko Aloña Mendiri eman diote Gipuzkoako kirol elkarte onenaren saria.

'OLIVER!' IKUSKIZUNA IRUÑEAN ETA DONOSTIAN Bergarako Orfeoiak *Oliver!* musika ikuskizuna eskainiko du Iruñeko Baluarte aretoan bihar, abenduaren 27an. Oraintsu zabaldu den areto berri horretan euskaraz eskaintzen den lehenengo ikuskizuna izango da. Bestalde, Bergarako Orfeoiak Donostiako Kursaalen ere eskainiko du *Oliver!* Urtarrilaren 2an eta 3an izango da hori, 18:00etan hasita. Iaz Euskalduna jauregian eskaini zuten, eta arrakasta handia izan zuten. Ikuskizunean 130 bat lagunek hartzen dute parte; horietatik 45 neska-mutikoak dira.



EGURALDI KASKARRARI, AURPEGI ONA Santamasetako lehiaketan, barazkietan, Tomas Larrañaga antzuolarrak irabazi zuen beste behin (argazkian). Frutetan, Antonio Iparragirrek. Gazta lehiaketan, berriz, Ramon Mugertza hernaniarrak.

ARRASATEKO ERAKUSLEIHORIK ONENA, OTAMENDIRENA Otamendi harategiak irabazi du, beste behin, Arrasateko Udalak antolatutako erakusleiho txapelketa. 180 euro eta plaka bat jaso zituen irabazleak; bigarrena Lore drogeria izan da (150 euro) eta hirugarrena Bea lentzeria denda (120 euro).

BERGARAKO BASTER JANTZI DENDA SARITU DUTE Gipuzkoako Merkataritza Ganberak urtero antolatzen duen erakusleiho txapelketan, aurten bigarren saria eman diote Bergarako Baster jantzi dendari.

BERGARAKO ERAKUSLEIHO ONENAK Martitzenean banatu zituzten Bergarako erakusleiho txapelketako sariak: Ninika loradenda, Baster jantzi denda eta kilika dekorazio denda izan dira sarituak. 250 euro eta plaka bana jaso zituzten.

Gutunak

Herritik kanpo

Azken 28 urte luzeak herritik kanpo. Horietatik ia hamabi frantziar zein espainiar Estatuetako kartzeletan sakabanaturik, espetxez espetxeko bide luzea eta bide luze horren urrats bakoitzak Euskal herritik are gehiago urruntzeko: La Sante, Fleury Merogis, Fresnes, Osny, Clairvaux, Soto del Real, Navalcarnero, Valdemoro, Jaen II...

Abenduaren 14an gure artean izan genuen Joseba, berri triste batek gurera ekarrita ordea, amaren heriotzak.

Euskal Herritik 804 kilometrora duten Jaengo espetxean, lurralde arrotz horretan hartu zuen berri gogorra, eta bertatik atera zuten Euskal Herrirako, Oñatirako bidean, goizaldeko bostetan. Negu gorrian, Madrilerainoko bidea hotzez egin behar izan zuen, ekarri zuten furgonetan aire egokitu hotza jarri ziotelako. Honako hau dugu gure senide presoekiko erakusten duten begirunea.

Behin Oñatira iritsita, 28 urte luzez bere semea ikusi gabe izan den herrira, bertakoon elkartasuna, berotasuna, goxotasuna oztopatzen saiatu ziren, inguratzen zuten ertzainek ez baitziguten aukerarik eman Josebari doluminak emateko, une labur batez bazen ere besarkatzeko. Ez ziguten aukerarik eman kanposantuan bildu ginenoi, heldu orduko kanposantuko kapillan zutelako jada eta etxeko batzuei baino ez zieten berarekin izateko aukera eman. Ama lurperatu eta berehala eraman zuten Joseba Langraitzeko espetxera. Ezta hurrengo egunean hileta elizkizunetara hurbildu ginenok ere ez genuen berarekin egoteko aukerarik izan. Eskuburdinak jarrita uneoro, beregana inguratzen saiatu ginen bakoitzak, hurbiltzeko debekua jaso genuen inguruan zituen ertzainen aldetik.

Meza amaitu baino 5 minutu lehenago elizkizunetik ateratzen hasi zirenean jendeak txaloka agurtu zuen.

Ez ziguten bera besarkatzeko aukerarik eman, ez eta une gogor hauetan doluminak ematen utzi, ez genuen gure babesaren berotasuna zuzenean Josebari adierazterik izan, baina jartzen duten traba, oztopo hauen guztien gainetik gure elkartasuna, bere herriaren elkartasunik zintzoena sentitu zuela ziur gara. Ziur gara, ondoan sentitu gintuela, bera babesten, animuak ematen, oztopoez ulertzen ez duen goxotasunik zintzoena eskaintzen, halaxe izan gintuelako, halaxe hartu zuelako bere herriak. Jaso itzazu bada, Joseba, honako lerro xume hauetatik gure doluminik maitakorrena eta elkartasunik beroena zure herriaren partetik.

OÑATIKO ETXERAT
Oñati

Arrasaten eskola publikoak behar duen 0-3 zikloaren eskaintza

Duela hiru bat aste Joxemiel Aranzadik ongi baino hobeto defendatu zuen 0-3 zikloaren beharra Arrasaten. Guztiz bat nator berak eskutitz horretan egindako aipamen eta eskaerekin.

Hala era gai batzuetan sakondu nahi nuke:

Asko gara, Arrasaten, Euskal Eskola Publikoaren aldeko apustua egin dugunok.

Orain arte horrela izan ez bada ere, gaur egun badago aukera gure umeak jaio berritik Eskola Publikoan hezteko. Hori zen guk nahi genuena.

Onartzen dut denon gustukoa ez izatea Jaurlaritzak abian jarri duen bidea, Partzuergoarena hain zuzen ere. Neu ere ez nago ados hainbat gauzatan, baina hala ere, bide bakarra izanda, onar dezagun eta egin dezagun aurrera. Oraintxe pasatzen ari den trena hartu behar dugu, ezin dugu galdu orain daukagun aukera.

Alkateak ere jakin beharko luke berak daukala giltza. Berak kudeatzen duen herriaren hezkuntza-eskaintza herren geldituko da ez badu pausu hori ematen. Eskola Publikoaren alde egin dugunok hori besterik ez diogu eskatzen, gure eskubidea errespeta dezala eta berma dezala hezkuntza publikoaren eskaintza Arrasaten.

Ea denon artean gure asmoak lortzen ditugun.

JABIER OSES AZURMENDI
Arrasate

Elgetako Aralar-en kirtenkeriak

Duela hilabete batzuk Aralar-en panfleto zaletasunari buruz idatzi behar izan genuen. Geroztik, Udalean dituzten ordezkariei ere azaldu behar izan diegu nolako ulertezina iruditzen zaigun euren jokaera.

Edozein talde politikok egiten dituen adierazpen edo komunikatuak ulergarriak izan daitezke heldutasunez, egiarekiko jatortasunez eta hitzarmenak burututako kideekiko leialtasunez eginda daudenean. Elgetako Aralar-ek egiten duena, ostera, gehiago da konplexuz betetako sentsazionalismo merkea, herri honen aldeko jarduera politikoa baino.

EAJ-EAko zinegotziok ondo dakigu Aralar-en ordezkarien ezjakintasun eta esperientzia faltari buruz, baina gero eta jasangaitzagoa egiten ari zaiguna zera da, konplexuz betetako handiuste ezjakin batzuk lankidetzat izatea Udalean. Azken sei hilabete hauetan, gobernu kide bitxi hauengandik EAJ-EAri buruzko kirtenkeriak besterik ez ditugu entzun, Udalaren barne funtzionamenduari, semaforoei edo alkatearen soldata erdiari buruz, esate baterako. Eta, orain, Diputazioan egin omen dituzten gestioak direla-eta Elgetako saihesbideari ekin diezaioten.

Elgetarrok ondo dakigunez, EAJ-EAko ordezkariok ibili gara urte mordoska batean herriko saihesbidea lortzeko lanetan eta, zorionez, legealdi honetan egingo da. Pozten gara Aralar-ek Batzar Nagusietan daukan ordezkari bakarrak ere saihesbidearen alde agertzearekin baina, mesedez, ez iezaiezue gezurrik esan elgetarrei; proiektu hori sartuta zegoelako aurrekontuetan Aralar-ek ezer adierazi baino askoz lehenago.

Amaitzeko, Elgetako Aralar-i urte berrirako eskaera bat: politikan ahal denik eta agudoen heldutasuna lortu eta konplexuak gainditzeko. Umekeriak alde batera utzi eta, propaganda egitekotan, bakoitzak herriaren alde egin duanari buruz jardun dezala.

ELGETAKO EAJ-EA-KO
ZINEGOTZI TALDEA
Elgeta

Konstituzioa gainditzeko

Egun gutxi pasa dira zenbaitek espainiar konstituzioaren urteurrena ospatu zutenetik. Hogei eta bost urte dira jada jeltzaleak espainiar legaltasunaren astora igo zirenetik. Espainian hasi eta bukatzen den bidean, astoari aurrera egiteko azenario zati bat zintzilikatu zioten mutur aurrean (Gernikako estatutua), eta nola ez, egurra eman; egurra, astoaren buztanetik tiraka aritu den ezker abertzaleari. Hain eroso zeuden astoaren gainean jeltzaleak, beso batekin azenario zatia zintzilik mantentzen zuten bitartean, bestearekin egur gehiago banatzera pozik bildu zirela (Itun antiterroristak Madrilen, Iruñan, Ajuria-Enean…).

Baina urteak aurrera joan ahala, gero eta argiago zegoen astoa ez zela markatuko bidetik aterako. Azenarioa freskotasuna galtzen joan da ere eta astoari ziria sartzeko ere ez du balio. Lizarra-Garaziko trena heldu zenean, trenera asto eta guzti igo nahi izan zuten jeltzaleak, animaliarik onartzen ez zuen bagoi batera, eta trenak alde egin zigun. Bitartean egurrak ez du etenik izan eta azenario zatia ustelduz doan heinean, egurra lotsagabeki zabalduz joan da.

Eta 25 urte igaro eta gero, zer? Ibarretxek autonomia estatutu berri baterako proposamena kaleratu du, azenario zati berri bat zintzilikatu nahi dio mutur aurrean mugitu nahi ez duen asto zaharrari. Proposamena bera kaleratzea, pozgarria da, funtsean esan nahi duelako nonbait jabetu egin direla lehengo azenario zatiak jada ez duela balio. Horregatik, azken aldian, lurraldetasuna ahotan edukitzeari herri kontsultaren beharraren defentsa sutsua gehitzen badiogu, esan genezake elementu positiboak daudela. Baina ez planaren edukiaren aldetik (lehengo azenario zatia izaten jarraitzen baitu, freskoagoa, baina azenarioa azken finean), eztabaida zabaldu duelako baizik.

Horregatik diogu heldu dela garaia espainiar legaltasunaren astotik jaisteko, buztanetik tiratzeari uzteko eta denon artean, euskal herritar guztion autodeterminazioaren eskubidea garatuko duen PLAN bat adosteko. Honetan datza Batasunak lehengo azaroaren 1ean Iruñean plazaratutako Anaitasunako agiria. Bazterketarik gabeko eta aurre baldintzak jarri gabeko eztabaidari ekitea inposatu diguten gatazka egoeratik ateratzeko. Eta horretara bilduko ditu ezker abertzaleak bere indar guztiak, bere konpromisoa eta jarrera eraikitzailearekin. Gainera orain une aproposa da, espainiar agintariek, jeltzaleak astotik bota nahi dituztenean, astoa behingoz alde batera uzteko eta eraikuntza nazionalaren bideari jarraipena emateko.

Azkenik, planez ari garenez, noizko Arrasateko Udaletik bazterketa politikoa erabat ezabatzeko plan bat? Noiz arte eutsi behar diote EAJ, EA, IU-EB eta Aralarrek espainiar legaltasunaren astoari? Aurrera bolie!

ARRASATEKO BATASUNA
Arrasate

Musikarako lokalak

Bai, badakit Bergarako herritar gehienak konturatu direla gure herri honetan musika lokalen falta dagoela; baina alkate jaunari, ordea, bost axola. Lotsagarria iruditzen zait gai honekiko, Victoriano Gallastegi jaunak duen jarrera pasiboa. Hainbat kexa jarri ditugu udaletxean, zein *Berrigara*-n, baita Goiena Telebistara deitu ere; baina, hala eta guztiz ere, bere erantzuna hauxe izan da: "gazteak ulertu behar duzue denontzat entseatzeko lokalak egotea ezinezko dela".

Egoera honen aurrean galdera bat etortzen zait burura: musika ez al da kultura?. Bai, kultura da, horrenbeste "defendatzen" den kulturaren zati garrantzitsua. Beste behin ere, nabarian gelditzen da hitzak haizeak eramaten dituela; eta "kanpaina elektoralean" zin eginiko gauza gehienak, botoak irabazteko tresna besterik ez direla.

OLATZ OTAOLA
Bergara

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkoroberezibar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Iratxe Bengoa, Arantzazu Arana

SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Natali Martínez,
Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín,
Imanol Elortza, Amaia Mundiñano

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola

ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

BRICOCENTRO

Zure brikolaje denda

Uribarri auzoa. Garagartzako bidean. ARRASATE ORDUTEGIA: 10:00 - 13:30 eta 16:00 - 20:00 Zapatu arratsaldeetan irekita

Gabonetan ZABALIK

Abenduaren 26, 27, 29, 30 eta 31n
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ ZABALIK

Urtarrilaren 2, 3 eta 5ean ere
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ ZABALIK

Urte berri on!

Eskorga tolesgarria
Aluminiozkoa / 120 kilo
26,90 € / 4.476 pta.

Eskorga tolesgarria
150 kilo / Plataforma
21,90 € / 3.644 pta.

Lan-mahai tolesgarria
Baraila
17,90 € / 2.978 pta.

Zulagailu kolpatzailea mailuarekin
Apurtzailea / 850 W / Osagarriekin
69,90 € / 11.630 pta.

Zulagailu elektronikoa
Kolpatzailea / 600 W
18,00 € / 2.995 pta.

Lixagailu orbitala
90 x 187 mm / 135 W
18,00 € / 2.995 pta.

Esmerilagailu konbinatua
Sikua/Umela / 400 W
49,90 € / 8.303 pta.

Inguratzeko zerra
350 W / Abiadura bakarra
18,00 € / 2.995 pta.

Zulagailu torlojutzailea
14,4 V-ko bateria
34,90 € / 5.807 pta.

Disko-makina
115 mm / 500 W
18,00 € / 2.995 pta.

Fresatzeko makina kaxarekin
12 fresa / 1.020 W
69,90 € / 11.630 pta.

Arrabotatzeko makina elektrikoa
600 W
34'90 € / 5.807 pta.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2003ko abenduaren 26a

Pernando Barrena Bergaran izan da orain dela gutxi Euskal Herriko egoera politikoari buruz berbetan. Ildo nagusiak zein diren azaldu ostean, horrek dakartzan zailtasunen eta aukeren berri eman zuen hitzaldi batean. Gurekin ere egungo politikan esanguratsuak diren hainbat gairen inguruan jardun zuen, eta berak esandakoak jaso ditugu elkarrizketa honetan.

IRATI AGIRREAZALDEGI

ARGAZKI PRESS

Pernando Barrena

BATASUNEKO MAHAIKIDEA

“Madrilgo erasoen aurrean garaia da abertzaleon arteko planteamendu komunez hitz egiteko”

IBARRETXE PLANA

“Ibarretxe Planak dagoen horretan ez du balio gatazka politikoa gainditzeko. Edozein planek egoeraz eta eztabaida giroaz baliatu behar luke”

ETA-REN SU-ETENA

“ETAk esan du ez dela oztopo izango, gatazka konpontzeko erakusten bada indarra dagoela herria askatasun eta bake eszenatokira eramateko politikagintza arruntaren bidetik”

Hauteskundeetatik hona sei hilabete pasatu dira, eta AUBk eta herri plataforma gehienek ez dute ordezkaritzarik.

Horri begirako mezu politikoa egoeraren sortzaile diren PPren eta PSOEren aurrean egindako salaketan zentratu dugu batetik. Bestalde, hainbat talderen aldetik bestelako jarrera espero zitekeen, legez kanporatzearen kontrako diskurtsoa dutela ikusita, baina diskurtsotik praktikara pasatzeko aurrerapauso gutxi eman dute. Esku bateko hatzekin konta daitezke kasuak non borondate politikoaren arabera ezker abertzaleari dagozkion postuak eta parte hartzeko aukera errespetatzeko bitartekoak jarri diren.

Aukera politiko horren alde egin zutenei zer esango zenieke?

Eskerrak eman behar zaizkie, erakutsi zutelako baldintza politiko legal eta errepresio aldetik okerrenetan aurpegia emateko eta kalera ateratzeko gai izan zirela. Baina momentu politikook ez dira erresistitzekoak bakarrik, baizik eta iniziatiba politikoa edukitzeko eta herri hau beste eszenatoki politiko batera eramateko.

Madrildik zirika diharduten neurrian, alderdi abertzaleak elkarri mokoka ez dira ari?

Madrilek bultzatzen duen jarrera guztiz antidemokratikoa abertzaleondako oso mingarria da. Baina mingarriena da horren inguruan diskurtso bat daukagunok komunean erasoari aurre egiteko gai ez izatea. Erasoaren tamaina ikusita, garaia da planteamendu komunez hitz egiteko, eta posible den neurrian hitzartzeko herri barruan, proiektu politikoen arteko lehia badago ere, Madrilen eta Parisen aurrean sigla bezala ez agertzeko, herri moduan baizik.

Ibarretxe Plana puri-purian dagoen honetan, aurkako jarrera azaldu duzu. Zein arrazoi duzu horretarako?

Ibarretxe Planak dagoen horretan ez du balio gatazka politikoa gainditzeko. Edozein planen helburu nagusia egoeraz eta eztabaida giroaz baliatzea izan behar luke, gatazka politikoa gainditzeko edo gainditze bidean jartzeko. Euskal Herrian eraikitzen ari diren aukerak aprobetxatu behar dira, ez bakoitzak daukan proiektu politikoa mahai gainean jartzeko, baizik eta gatazkaren gainditzea lehenetsi behar duten bideak jartzeko. Horregatik, Ibarretxeri esaten diogu benetan gatazka konpontzeko borondatea badu eseri eta helburu hori daukagun guztiokin batera errezeta orokor bat osatzeko.

Esan berri duzu Konstituzioa euskaldunon nahien aurkako tresna dela. Zein da euskaldunon nahia?

Une honetan euskal gizartean badago sentsazio bat: herri honek aldaketa politikoa behar du. Gainera, nahiko zabal sumatzen da aldaketa politiko hori badatorrela, eta horretarako nahia oso zabala da Euskal Herrian. Jendeak horretaz hitz egiten duenean esan nahi du gatazka honekin bukatu egin behar dela eta bake eszenatokia behar dugula. Horretarako, oinarri sendoa behar da inork bortxa armatura jotzeko beharrik izan ez dezan, ez dagoelako inolako argudiorik horrelako bide bortitz bati ekiteko.

Entzun izan dira zurrumurruak ETAren su-etenaren gainean.

Ez dakit horrelakorik pentsatzeko nahiko aukera dagoen edo ez. ETA hor dago eta erro sakonak ditu herri honen historian. Egiten ari dena, gustuko izan edo ez izan kanpotik begiratuta, determinazio osoz egiten ari direla uste dut. Erreparatzen badiegu etengabe komunikatuetan esaten dituzten gauzei edo garai historiko batzuetan izan dituzten posizionamenduei, Lizarra-Garazi garaian esaterako, askotan errepikatu dute eurak ez direla inoiz oztopo izango baldin eta herri honetan erakusten bada indar nahikoa dagoela herria benetan askatasun eta bake eszenatokira eramateko politikagintza arruntaren bidetik.

Kataluniako hauteskundeetan gertatu dena ikusita, posible litzateke Euskal Herrian antzerako aliantzarik?

Nahi genuke Euskal Herriko sozialistak Kataluniakoen antzerakoak izatea. Beraien burua espainoltzat jo arren, oso katalanzaleak dira, badute estatu ereduaren kontzepzio demokratikoa eta jarrera hori hemengo sozialisten antipodetan dago. Horrelako egoera bat hemen gertatzeko sozialismo espainola parametro demokratikoetan kokatu behar da. Hemengoek Euskal Herriaren hitza eta errespetuaren oinarrian sinesten ez duten neurrian, nekez hitz egin daiteke alderdi horietaz demokratiko bezala.

Eraginik izango du Katalunian gertatu denak martxoko hauteskundeetan?

Eraginen bat izan lezake. Orain artean sozialista espainiarrek ezinezkotzat jotzen zuten martxoko hauteskundeetan irabazi ahal izatea, baina une honetan Maragallek Generalitateko presidentzia eskuratzeak irudi anbizioso eta positiboa ematen du eta hori Zapaterarorentzat baliagarria izan daiteke estatu mailan beste modu batean agertzeko. Argi daukat irabaziko duenak ikuspegi demokratikoagoa izan behar lukeela Euskal Herriko arazoari begira.

Beraz, panorama politikoa asko aldatuko litzateke PPk gehiengo absolutua lortuz gero?

Ez dut uste askorik aldatuko litzakeenik. PPren baitan ez dirudi inongo mugimendurik sumatzen denik Euskal Herriari begira daramaten ildo politikoa aldatzeko. Horren harira, esperantza nahiko urria da. Bestalde, ulertezina da Alderdi Sozialista PPren parametro beretan mugitzea, ez bada une honetan Alderdi Popularrak Espainiako iritzi publikoa manipulatua duelako eta zaila delako euskal arazoari begira bestelako jarrera batekin agertzea. Alderdi Sozialistari historikoki begiratuta boterera heltzeko bide bat baino ez zaio geratzen, Euskal Herriari begira duen ikuspegia aldatzea, bake iraunkorra ekartzeko. Gainera, espainiarrek eskertu egingo liokete historiaren orrialde beltz bat itxiko luketelako.

Abertzaleen eta autodeterminazioaren aldekoen zerrenda bateratua proposatu duzue martxoko hauteskundeetarako. Zer espero duzue?

Ezker abertzaleak ez dauka interes partidistarik martxoko hauteskundeei begira, beti defendatu baitugu espainolak ez garen neurrian ez garela deituak sentitzen hauteskunde horietan parte hartzera, baina herri bezala erantzunda aukerak egon daitezke herri gisako erantzuna emateko eta Euskal Herriari dagokion erabakitze eskubidea aldarrikatzeko. Beste alderdiekin hitz egin dugu haien jarrerak jasotzeko, eta denetarikoak izan dira. Orain artean inork ez du ezezko biribilik eman, baina batzuek baldintzak ipini dituzte mahai gainean. EAJk, esaterako, ETAren su-etena eskatu du. Bakoitzak kandidatura bakar hori gauzatzeko ikus dezakeen edozein behar ez du oztopo izan behar esertzeko, hitz egiteko eta planteamendua begi onez ikusten dugunok proposamenari bideragarritasuna emateko. Proposamen hau irabazteko proposamena da. Abertzale eta autodeterminazioaren aldeko indar guztiak batuta, martxoan aukeratu beharko liratekeen diputatu eta senatari guztien parterik handiena kandidatura horrek eskuratuko bailuke. Eta Madrilen herri gisa agertu.

zorionak eta urte berri on

elkarlanean

ikastola aurrera

ARANZADI IKASTOLA

Arizmendi ikastola

TXANTXIKU IKASTOLA

ibai-arte

Aldedi ■ Alonso Anaiak ■ Altuna ■ Anboto ■ Aranzabal ■ Arrasate Zoo ■ Arregi ■ Artea ■ Bea ■ Bed's ■ Beinke ■ Belem ■ Ceciaga ■ Egizabal ■ Ehune ■ Elkoro Expert ■ Eya ■ Eya ■ Elorza ■ Eroski Bidaiak ■ Erosle ■ Etxe Lan ■ Etxe Mobiliario ■ Euskadiko Kutxa ■ Feli ■ Flash ■ Foto Imagen ■ Galeria 44 ■ Garagorri ■ Gili-Gili ■ Haurtxoa ■ Hemen ■ Hire ■ Ikatz ■ Itzala ■ Izozkitegi ■ J. Uriarte- Tamayo ■ J.G. ■ Juanma ■ Kajoi ■ Kilikolo ■ Klas ■ Kutxa ■ La Caixa ■ Laket ■ Landaluze ■ Lasagabaster ■ Lilura ■ Lorategi ■ Lore ■ Los Vaqueros ■ Luko ■ Mabel ■ Marga ■ Markiegi ■ Mayte ■ Maza ■ Milar Elkoro ■ Monte ■ Muruamendiaraz ■ Nerea ■ Oihana ■ Benetton / Onandia ■ Otamendi ■ Parlance ■ Phildar ■ Portaloiko Kioskoa ■ Portaloiko optika ■ Sikol ■ Sugar ■ Tokion ■ Tomas ■ Totem ■ Troko ■ Txuntxurunberde ■ Udalaitz ■ Ume ■ Uriarte Sport ■ Urrats ■ Zabaleta ■ Zarraoa ■ Zubia ■ Zubiaga ■ Zur-Lur



Gabonetan
Ibai-arten erosita,
telefono agenda opari!

Eusko Jaurlaritza

Abenduaren 27an, 18:00etan Arrasateko kaleetan kale animazioa:

GOLOKA TALDEAREN “SORGINAK” EMANALDIA

IBAI ARTE MERKATARIEN ELKARTEAK ANTOLATUA.

Goienka 2a

Egubakoitza / 2003ko abenduaren 26a

Kultura eta aisialdia

Abenduaren 26tik urtarrilaren 6ra

Zaindu *itxura* hori!

Gabonetako opariak ilusio osoz jaso eta ematen ditugu. Opariak geuk ematen ditugunean ere, gustuko dugu hartzailearen aurpegia ikustea eskuotan hartzen duenean. Baina benetan nahi dugun efektua lortzeko, opariaren edukia bezain garrantzitsua da beronen itxura. Pakete apainak eta dotoreak egitea edonoren esku dago, eta, oraingo astean, horretarako ideia batzuk bildu ditugu zuretako.

LEIRE KORTABARRIA

AZALA: IÑAKI ITURBE / JATORRIZKO IRUDIA: LEIRE KORTABARRIA

Goienkaria-k hitzordua egin nahi du zurekin ASTELEHENERO

Egubakoitzez gain ,
astelehenetan ere badugu
✓ zer esan,
✓ zer erakutsi,
✓ zer proposatu.

Zure astelehenak... gurekin
ASTELEHENEKO Goienkaria

Harpidedun izan nahi duzu?

- Asteleheneko Goienkariaren aleak kioskoan erosita baino %20 merkeago aterako zaizu.
- Asteleheneko Goienkaria etxean (edo zuk esandako tokian) jasoko duzu.

KIOSKOAN ASTERO 0,80€
ASTELEHENEKO Goienkaria
25€
URTE OSOKO HARPIDETZA
kioskoan baino %20 merkeago

harpidetzak merezi du... merezi dizu!

- Gainera, orain harpidetuz gero, zure herriko euskaran idatzitako **ipuin liburua DOAN!**

Nola harpidetu:

Ondoko harpidetza txartela zure datuekin bete, ebaki eta postaz bidali helbide honetara: **3FD Posta Kutxa. 20500 Arrasate. Gipuzkoa.**

902 36 38 51 943 79 22 93 astelehenekoa@goiena.com www.goiena.net

ASTELEHENEKO Goienkaria

HARPIDETZA TXARTELA

Izendeiturak: _____
Helbidea: _____ Tel.: _____
Herria: _____ Kode postala: _____
Posta elektronikoa: _____
Non jaso nahi duzu? Etxean ☐ Kioskoan ☐ _____
Beste nonbait* ☐ _____
Harpidedunaren kontu korrontea (20 zenbaki): ☐☐☐☐ ☐☐☐☐ ☐☐ ☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐

Urteko harpidetza: 25 € / 40 ale urtean

*Herriz kanpoko banaketa kasuz-kasu aztertuko da.



Zorionak eta urte berri on!

Mapfre
Errekabarren 3
943 77 11 76
ARETXABALETA

Mapfre
Garibai etorbidea 16
ARRASATE
943 79 89 00

Arrasate pasealekua 37
ARRASATE
943 79 71 31

Mapfre
Simon Arrieta 3
943 76 18 80
BERGARA

Altube zerbitzuak Mapfre
Portu 5
943 78 12 65
OÑATI

GABONAK/ OPARIAK APAINTZEA, ERRAZA ETA ATSEGINA

Itxura ederra, opari baten erdia

GABONETAKO OPARIOK MODU ERAKARGARRIAN AURKEZTEA OSO ERRAZA DA. HONA HEMEN PAKETE POLITAK ZELAN EGIN

LEIRE KORTABARRIA

Zenbat aldiz entzun dugu, opari bat jasotzerakoan, ia-ia opariak berak bezainbateko ilusio egiten diola jendeari opariaren itxurak, paper dotoreak, eta begiztek? Bada, pakete eder horiek egitea ez da dirudien bezain konplikatua. Arrasateko Lore dendakoek erakutsi digute zelan egin.

Batzuek opari-pakete liluragarriak egiteko esku berezia duela uste izaten dugu; baina Lore dendako Marisa Etxebarriak dioskun bezala, "dirudien baino errazagoa da, eta edozeinek egin dezake". Praktika apur bat behar da, hori bai; hortaz, egunotan oparirik egitea eta zuk zeuk biltzea egokitzen bazaizu, ez arduratu, "opariaren erdia" den itxura oneko bilgarria modu errazean egin ahal izango duzu-eta.

Horretarako behar diren koloreetako edo marrazkiz apaindutako paper berezia paper-dendetan dago erosgai. Zelofana ere aukeran dago. Begiztak paperez bakarrik egiten ziren orain dela gutxira arte, baina gaur egun telazko zintak ere badaude salgai. Azkenik, Gabon zoriontsuak opatzeko pegatinak ere paper-dendetan aurkituko ditugu. Prezioak ere, gure aukeraren arabera: adibidez, bi metroko bobinak 0,75etik 1,55 eurora ditugu; zelofana, 0,65 eta 0,95 euro artean; begiztak egiteko zintak, 0,85 eta 1,05 euro bitartean, estuago edo zabalagoak diren arabera… Pegatinak, azkenik, 5 zentimotik aurrera ditugu.

HAINBAT IDEIA

Hasteko, oinarrizko estiloan bilduko dugu paketea. Gero, soberan dugun paperarekin laukiak ebaki ditzakegu, eta errosetoi tankerako apaingarriak egin, eta gero zintarekin batu.

Baina eskulanetan trebeegiak ez bagara, beste aukerarik badago: hainbat oparik oso itxura polita hartzen dute, beste barik, paper erakargarri batekin bildu eta, bi muturrak zintarekin batuta, goxoki itxurako paketea egiten badugu. Gozoki formako bilgarriaren bariante bat ere badago, zutikako oparien kasurako (kaxak, botilak…): paper gainean jarri oparia, eta papera goiko aldean bildu zinta batekin.

Lore lehor edo imitaziozkoak ere erants diezazkiokegu paketeari, eta era horretan efektu benetan erakargarria lortu.

Barrutik ere, ikusgarria

Opari itxurosoa egitea ez da kanpoaldea zaintzearekin bukatzen; irudimena erabiliz gero, benetan opari ahaztezina egin diezaiokegu edonori. Izan ere, kanpoaldea ez ezik, barrutik ere apain dezakegu gure oparia.

Horretarako, lore hostoak, girlandak, konfetia, elur artifiziala… erabil ditzakegu. Muga gure irudimenak jarriko du. Apaingarri horiek erabilita, bizi berria eman diezaiokegu kaxa batean dagoen opari bati, esaterako; paketea ireki ondoren ere, hartzaileak begiz joko duen oparia izango da.

Zelofana ere gero eta gehiago erabiltzen da. Oparien misterioa gordetzen ez duen arren, zelofana eta zinta polit bat erabiltzea merezi du opari txiki baten kasuan: adibidez, kolonia poto bat, kandela bat edo apaingarri bat opari egiten dugunean.

1. PAPERA, SOBERAN HOBE GUTXIEGI BAINO
Ez izan paper larregi hartzeko beldur. Baina egin nahi duzun paketerako gutxiegi ebaki baduzu ere, ez bota; aprobetxatu ahal izango duzu ebakitako zatia.

2. PAPER LAUKIEKIN, ARROSA FORMAKO APAINGARRIA
Soberan dagoen paperarekin arrosa formako apaingarria egin daiteke: laukiak ebaki eta, erditik estututa, begiztak egin eta elkarrekin lotu.

3. ZINTA KIZKURTU
Arrosa paketea biltzeko erabiliko dugun zinta berberarekin lotuko dugu. Zintaren zati luzeak guraizeekin kizkurtuko ditugu, efektu politagoa lortzeko.

4. LORE LEHORRAK
Paketea gertu dago opari egiteko. Apainketa biribiltzeko, lore lehorrak edo artifizialak erants diezazkiokegu paketeari. Eta listo!

MEMESA SL
Industri hornidurak
943 71 24 25

PREVISORA BILBAINA
ASEGURUAK
Osasun zerbitzuen eskaintza zabala barne duen HERIOTZA-ASEGURU bakarra.
Hitzartutako mediku, dentista, optika-kate eta bainuetxeetan DESKONTUAK
Zerrajera kalea 4, 1.
ARRASATE
Tel.: 943 79 22 19

Garitano podologia
- Oinetako arazoen tratamendua
- Ikerketa biomekanikoa
- Neurrira egindako plantillak
Iturriotz 7 bis • ARRASATE
Tel.: 943 79 67 02

Abe. 26- Urt. 6

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

DEIAK

ANTZUOLA

► **Jolasparkea** egongo da zabalik hilaren 29an, astelehena, pilotalekuan, 11:00-13:00 eta 16:00-19:00.

ARAMAIO

► **Zinema emanaldiak** egongo dira kultura etxean. Gaur, egubakoitza, *Jackie Brown* filma eskainiko dute; urtarrilaren 2an, *Reservoir Dogs*. Sarrera euro bat kostatuko da.

ARETXABALETA

► **Poxpolin Park** jolasparkea zabalik egongo da hilaren 29an eta 30ean, astelehena eta martitzena, kiroldegian. Eguneko sarrera 3 euro kostatuko da.

ARRASATE

► **Bazkaria egongo da** etzi, domeka, gaztetxean. Baba-jana egingo dute.

► **Sakabanaketaren aurkako** kale-agerraldia egingo dute etzi, domeka, 20:00etan.

► **Gabonetako jolasparkea** zabalik egongo da urtarrilaren 2tik 4ra, 11:00-14:00 eta 16:00-20:00; eta urtarrilaren 5ean, 11:00-14:00. Musakolako kiroldegian egongo da.

BERGARA

► **Umeendako Gabonetako jolasparkea** egongo da gaur eta bihar Labegaraietako kiroldegian, 15:30-19:30. Sarrera 3 euro kostatuko da.

Carrión música, s.a.

- Gitarrak, baxuak, anplifikadoreak, teklatuak, soinu ekipamenduak.
- Pianoak eta trikitixak errentan hartzeko aukera, eta erosteko.

GABONETAKO
ESKAINTZA BEREZIAK!

Manuel Iradier 20 / Dato 42
Tel.: 945 23 07 49
GASTEIZ

► **Bertso afaria** egingo dute bihar, zapatua, Angiozarko auzo elkartean, 21:00etan.

► **Nekazaritza jolasak** egongo dira ume guztiondako bihar, zapatua, kiroldegian, 16:00etan.

► **Bertso-magia emanaldia** egingo dute Alain Martinez eta Jon Martinek etzi, domeka, Pol-Pol tabernan, 19:00etan.

► **Euskal presoen aldeko** hainbat ekimen egongo dira. Gaur, egubakoitza, kale-bilkura egingo dute, Herriko Plazan, 19:30ean; etzi, domeka, frontoian elkartuko dira, 10:00etan, Martutenera eta Kanbora martxak egiteko; hilaren 31n, eguaztena, presoen eta iheslarien aldeko topa egingo dute Herriko Plazan, 01:00etan; urtarrilaren 2an, kale-bilkura egingo dute 19:30ean; eta hilaren 3an Bilboko agerraldira joango dira. Autobusetarako izena emateko, jo Arrano edo Pol-Pol tabernetara.

DEBAGOIENA

► **EHNE sindikatuko** ibarreko kideek batzarra izango dute gaur, egubakoitza, Bergarako Artekalean duten egoitzan, 21:00etan.

ESKORIATZA

► **Gabonetako jolasparkea** zabalduko dute gaur, egubakoitza. Bihar eta etzi ere zabalik egongo da. Kantxakoaren ordutegia 11:00-13:00 eta 17:00-20:00 izango da; igerilekukoa, 11:00-13:00; 6 urtetik gorako umeendako, 17:00-18:30, eta 6 urtetik beherakoendako eta helduondako, 18:30-20:00. Hiru egunotarako txartela 6 euro kostatuko da; bakarrekoa, 3.

► **Bigarren eskuko material azoka** egingo dute gaztetxekoek bihar eta etzi. CDak, arropak, liburuak… eskainiko dituzte, besteak beste. Inork azokarako zerbait eman nahi badu, gustura hartuko dute.

OÑATI

► **Umorezko zinemaren gaua** egongo da gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 21:00etan.

► **Oñatiko konderriak** utzitako ondare historikoa ezagutzeko tren turistikoa egongo da hilaren 29an eta 30ean, astelehena eta martitzena.

Pedrosa hondeatzeak

- Era guztietako hondeatzeak
  Enpresendako eta partikularrendako

Eska ezazu aurrekontua konpromisorik gabe.



Arantzazu kalea 2-D,1. ezkerra•**Oñati**•Tel.:**943 78 24 62**•Poltsikokoa:**666 62 17 81**

ARRASATE

► **Arrasate Musikaleko Bandak** kontzertua eskainiko du eguaztenean, abenduak 31, Amaia Udal Antzokian, 13:00etan. Aurretik, kalejira egingo dute, 11:30ean, hain zuzen ere.

BERGARA

► **Ñaco Goñi y los Bluescavidas** taldearen emanaldia egongo da gaur, egubakoitza, Jam aretoan, 22:00etan.

► **Paramount Comedy** umorezko bakarrizketak antzeztuko dituzte bihar, zapatua, Jam aretoan, 22:30ean.

► **Disko jartzaileen saioa** egongo da hilaren 31n, eguaztena, Jam aretoan, 01:00etan.

ESKORIATZA

► **Donosti Ereski Schola Gregorianista** abesbatzak Gabonetako kontzertua eskainiko du bihar, zapatua, San Pedro elizan, 19:30ean.

OÑATI

► **Sex Museum (Madril) eta Borroka (Euskal Herria)** taldeen kontzertua egongo da bihar, zapatua, gaztelekuan, 22:30ean.

► **Anari, Petti eta Xabi Strubell** musikariek emanaldia egingo dute etzi, domeka, gaztelekuan, 22:30ean.

► **Kañeria 13** taldearen kontzertua egongo da hilaren 29an, astelehena, gaztelekuan, 22:30ean.

IKASTAROAK

ARRASATE

► **Aisialdiko begirale** ikastaroa antolatu du Txatxilipurdik urtarriletik ekainera, zapaturo, Arrasateko aterpetxe baten. Argibideak: 943 79 54 46.

► **Masaje ikastaroa** antolatu du Txatxilipurdik urtarrilaren 15etik martxoaren 11ra bitartean. Martitzenetan, erlaxazio-masajea irakatsiko dute; eguenetan, tailandiarra. San Andresko Gazte Txokoan izango da, 17:30etik 19:30era. 12-17 urte artekoek 10 euro ordaindu beharko dituzte; gainerakook, 20. Izena emateko, deitu 943 77 17 39 telefonora, urtarrilaren 9a baino lehen.

EUSKAL HERRIA

► **Euskara irakasle izateko** ikastaroa deitu du AEKk Durangon,

MUSIKA

ARETXABALETA

► **Herriko abesbatzak** Gabonetako emanaldia egingo du etzi, domeka, Parrokian, 19:00etan.

ESKORIATZA

► **Gabonetako jolasparkea** egongo da urtarrilaren 2an eta 3an, kiroldegian. Ordutegia honakoa izango da: 10:00-12:00 eta 15:00-17:00.

► **Bertso saioa** egongo da urtarrilaren 5ean, astelehena, kiroldegian, 22:30ean.

► OSPAKIZUNAK

EKIALDEKO ERREGE MAGOEK KABALGATA EGINGO DUTE IBARREAN

Errege magoen bisitaldia izango dugu Debagoienean urtarrilaren 5ean, astelehena. Gau horretan banatuko dituzte ibarreko umeondako opariak; baina, aurretik, kabalgata egingo dute ibarreko herrietako kaleetan. Oñatikoa izango da lehena; han, 18:00etan hasiko dute kabalgata Meltxor, Gaspar eta Baltasarrek. Ordu erdi geroago iritsiko dira Eskoriatza eta Aretxabaletako kaleetara; 19:00etan, berriz, Mondragoera, eta 19:30ean, Bergarara. Herriko kale nagusietatik ibiliko dira hiru erregeak. Tartean, herriko hainbat musika talderen laguntza izango dute; eta, nola ez, herriko ume eta gurasoak ere irtengo dira kalera erregeoi ongietorria egitera.

Non: Arrasaten, Aretxabaletan, Bergaran, Oñatin eta Eskoriatzan. **Noiz:** urtarrilak 5, astelehena. **Ordua:** 18:00-19:30.

KONTZERTUAK OÑATIKO GAZTELEKUAN, LEHEN URTEMUGA DELA-ETA

Oñatiko gaztelekuak lehenengo urtemuga bete berri du. Hori dela-eta, hainbat ekintza berezi antolatu ditu Oñatiko Gazteak taldeak. Tartean, kontzertu batzuk egongo dira datozen egunotan. Hilaren 27an, zapatua, Sex Museum eta Borroka taldeek egingo dute emanaldia; 28an, domeka, Petti, Anari eta Xabi Strubell musikariek; eta 29an, astelehena, Kañeria 13 taldeak. Emanaldi guztiak gaztelekuan izango dira, 22:30ean.

urtarrilaren 12an hasita. Matrikula urtarrilaren 8a baino lehen egin beharko da, 94 415 95 12 telefonora deituta edo *btp@aeknet.net* helbidean.

ERAKUSKETAK

ARETXABALETA

► ***Zabaldu mezua munduan*** erakusketa egongo da zabalik abenduaren 31n eta urtarrilaren 5ean, Udaletxe Zaharrean, 18:00etan, Euskal Presoak Euskal Herrira taldearen eskutik.

LEHIAKETAK

EUSKAL HERRIA

► **Amodiozko Gutunen XII. Berrigara Lehiaketan** parte hartzeko mugaeguna urtarrilaren 8a da. Bidali lanok honako helbidera: Jardun elkartea, 103 PK; 20570 Bergara; edo *kulturajardun@ topagunea.com*-era.

ANTZERKIA

BERGARA

► **Kiki, Koko eta Moko pailazoen** ikuskizuna egongo da bihar, zapatua, kiroldegian, 18:00etan.

► ***Non dago trukoa?*** ikuskizuna eskainiko dute Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoek urtarrilaren 4an, domeka, udal pilotalekuan, 18:00etan

JAIAK

ARETXABALETA

► **Bizar Zuri** errege magoen laguntzailea etorriko da herrira hilaren 31n, eguaztena. Kalejira egingo du 18:30ean, kiroldegitik hasita, Leizarra Musika Eskolakoekin.

BERGARA

► **Bizar Zuri** errege magoen laguntzailea etorriko da herrira hilaren 5ean, astelehena, San Martin Agirre plazan, 18:00etan.

OÑATI

► **Umeendako jaialdia** egongo da etzi, domeka, kiroldegian, 18:00etan. Tutik ere Clowns pailazoak eta Elvi sabel-hiztuna egongo dira, beste ezuste batzuen artean. Sarrerak kultura etxean eros daitezke aldez aurretik, eta 3 euro kostatuko dira.

► **Gabon Zaharreko jaialdia** egongo da abenduaren 31n, eguaztena, gaztelekuan, gauean. Ezuste atseginez betetako gaua izango da.

Zinema

BERGARA

■ **NOVEDADES**

Buscando a Nemo
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30.

OÑATI

■ **OÑATIKO ZINEMA**

S.W.A.T., los hombres de Harrelson
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 22:30.

Emil eta detektibeak
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.

EIBAR

■ **UNZAGA**

El Cid, la leyenda
Egubakoitza: 19:30.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30.
Astelehena eta martitzena: 19:30.

S.W.A.T., los hombres de Harrelson
Egubakoitza: 22:15.
Zapatutik martitzenera: 22:15.

■ **RIALTO**

Hero
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

GASTEIZ

■ **GURIDI**

Looney tunes
Egunero: 17:00.

Buscando a Nemo
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

Elf
Egunero: 17:30, 20:00.

Love actually
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

Planta 4ª
Egunero: 19:45, 22:30.

Al otro lado del mundo
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

S.W.A.T., los hombres de Harrelson
Egunero: 22:30.

El señor de los anillos 3: el retorno del rey
Egunero: 17:00, 21:00.

Ordutegiok abenduaren 30era bitartean dira.

■ **MIKELDI ZINEMAK**

Al otro lado del mundo
Egunero: 17:15, 20:00, 22:30.
Hilak 31: 17:15.

El señor de los anillos 3: el retorno del rey
Egunero: 16:00, 19:35, 23:10.
Hilak 31: 16:45.

Love actually
Egunero: 20:00, 22:30.
Hilak 31: 17:15.

La pelota vasca
Egunero: 17:15.
Hilak 31: ez dago emanaldirik.

Looney tunes
Egunero: 17:00, 19:45.
Hilak 31: 17:00.

Time line
Egunero: 23:05.
Hilak 31: ez dago emanaldirik.

Una relación peligrosa
Egunero: 17:30, 20:15, 23:10.
Hilak 31: 17:30.

Matrix revolutions
Egunero: 22:30.
Hilak 31: ez dago emanaldirik.

Ponte en mi lugar
Egunero: 17:30, 20:15.
Hilak 31: 17:30.

El Cid: la leyenda
Egunero: 17:15, 20:00.
Hilak 31: 17:15.

Goodbye Lenin
Egunero: 17:15, 20:00, 22:30.
Hilak 31: 17:15.

Planta 4ª
Egunero: 23:10.
Hilak 31: ez dago emanaldirik.

La casa de los 1.000 cadáveres
Egunero: 17:30, 20:15, 23:10.
Hilak 31: 17:30.

Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

■ **FLORIDA-GURIDI**

Te doy mis ojos
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

Los impostores
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

Unibertsolariak
Egunero: 17:00, 18:30.

La flor del mal
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

Un cuento de Navidad
Egunero: 20:00, 22:30.

El Cid: kondaira
Egunero: 17:00.

Samsara
Egunero: 19:45, 22:30.

Todo lo demás
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

Invasiones bárbaras
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

Ordutegiok abenduaren 30era arte dira.

■ **ABACO-LAKUA ZINEMAK**

Buscando a Nemo
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 18:25, 20:30, 22:45, 00:45.
Domeka: 16:15, 18:25, 20:30, 22:45.

El poder del talismán
Egubakoitza eta zapatua: 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:30.
Domeka: 16:20, 18:20, 20:20, 22:20.

Los impostores
Egunero: 16:30, 19:30.

La casa de los 1.000 cadáveres
Egubakoitza eta zapatua: 16:10, 18:00, 20:05, 22:05, 00:30.
Domeka: 16:10, 18:00, 20:05, 22:05.

Al otro lado del mundo
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 19:15, 22:10, 01:00.
Domeka: 16:15, 19:15, 22:10.

S.W.A.T., los hombres de Harrelson
Egunero: 16:10, 19:20.

Ponte en mi lugar
Egubakoitza eta zapatua: 16:05, 18:10, 20:10, 22:15, 00:30.
Egunero: 16:05, 18:10, 20:10, 22:15.

En América
Egubakoitza eta zapatua: 22:00, 00:30.
Domeka: 22:00.

El señor de los anillos 3: el retorno del rey
Egunero: 16:00, 19:45, 23:30.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **YELMO CINEPLEX**

El señor de los anillos 3: el retorno del rey
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.
Domekatik martitzenera: 17:30, 21:30, 15:30, 19:30.
Abenduak 31: 15:30.
Urtarrilak 1: 17:30, 19:30, 21:30.

S.W.A.T., los hombres de Harrelson
Egubakoitza eta zapatua: 15:35, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.
Domekatik martitzenera: 15:35, 18:00, 20:15, 22:30.
Abenduak 31: 15:35, 18:00.
Urtarrilak 1: 18:00, 20:15, 22:30.

Crueldad intolerable
Egubakoitza eta zapatua: 22:40, 00:40.
Domekatik martitzenera: 22:40.
Hilak 1: 22:40.

Love actually
Egubakoitza eta zapatua: 16:05, 19:00, 22:00, 00:25.
Domekatik martitzenera: 16:05, 19:00, 22:00.
Abenduak 31: 16:55.
Urtarrilak 1: 19:00, 22:00.

Elf
Egubakoitza eta zapatua: 16:10, 18:20, 20:30, 22:20, 00:10.
Domekatik martitzenera: 16:10, 18:20, 20:30, 22:20.
Abenduak 31: 16:10, 18:20.
Urtarrilak 1: 18:20, 20:30, 22:20.

Looney tunes
Egubakoitzetik martitzenera: 16:00, 18:15.
Urtarrilak 1: 18:15.

Lágrimas del sol
Egubakoitza eta zapatua: 22:10, 00:30.
Domekatik martitzenera: 22:10.
Urtarrilak 1: 22:10.

Riders
Egubakoitza eta zapatua: 20:05, 22:05, 00:05.
Domekatik martitzenera: 20:05, 22:05.
Urtarrilak 1: 20:05, 22:05.

Días de fútbol
Egubakoitzetik eguaztenera: 15:30.
Urtarrilak 1: 18:05, 20:10, 22:15.

Buscando a Nemo
Egubakoitza eta zapatua: 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.
Domekatik martitzenera: 15:45, 18:00, 20:15, 22:30.
Abenduak 31: 15:45, 18:00.
Urtarrilak 1: 18:00, 20:15, 22:30.

Time line
Egubakoitza eta zapatua: 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:40.
Domekatik martitzenera: 15:45, 18:00, 20:15, 22:30.
Abenduak 31: 15:45, 18:00.
Urtarrilak 1: 18:00, 20:15, 22:30.

Al otro lado del mundo
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 19:00, 22:00, 00:45.
Domekatik martitzenera: 16:15, 19:00, 22:00.
Abenduak 31: 16:50.
Urtarrilak 1: 19:00, 22:00.

El Cid, la leyenda
Egubakoitzetik martitzenera: 16:15, 18:10, 20:00.
Abenduak 31: 16:15, 18:10.
Urtarrilak 1: 18:10, 20:00.

Ponte en mi lugar
Egubakoitzetik martitzenera: 16:20, 18:20, 20:20.
Abenduak 31: 16:20, 18:20.
Urtarrilak 1: 18:20, 22:20.

La maldición
Egubakoitza eta zapatua: 22:20, 00:20.
Domekatik martitzenera: 22:20.
Urtarrilak 1: 22:20.

Los Reyes Magos
Egubakoitzetik martitzenera: 16:35, 18:35, 20:35.
Abenduak 31: 16:35, 18:15.
Urtarrilak 1: 18:35, 20:35.

Olentzero
Egubakoitzetik martitzenera: 16:05, 18:05.
Abenduak 31: 16:05, 18:05.
Urtarrilak 1: 18:05.

Las invasiones bárbaras
Egubakoitza eta zapatua: 20:25, 22:25, 00:25.
Domekatik martitzenera: 20:25, 22:25.
Urtarrilak 1: 20:25, 22:25.
Astelehena, ikuslearen eguna.

Love actually: ●●●● / ***Te doy mis ojos:*** ●●●● / ***La pelota vasca:*** ●●●● / ***Buscando a Nemo:*** ●●●● / ***Crueldad intolerable:*** ●●

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

KRITIKA

TODO LO DEMÁS

PUNTUAZIOA: ●●●●

ZUZENDARIA: Woody Allen.
AKTOREAK: Woody Allen, Jason Biggs, Christina Ricci.

Iritsi da zinema aretoetara, urtero gertatzen den bezala, Woody Allenen azkeneneko filma. *Todo lo demás* da bere izenburua, eta zuzendariaren filmografiari begirada bat ematen badiogu, konturatuko gara baduela Allenen pelikuletan komunak diren ezaugarri asko, baina baduela, era berean, desberdintzen duten beste batzuk.

Ezagunak egiten zaizkigun osagaiekin hasiz gero, zera aipa dezakegu: erabiltzen duen soinu-banda jazz klasikoa dela, kontatzen zaigun istorioa New Yorken girotuta dagoela (Central Parkek protagonismo berezia hartzen du), eta agertzen diren pertsonaiek betiko segurtasunik eza, zalantza existentzialak eta arazo sentimentalak azaltzen dituztela.

Desberdinak diren osagaien aipamenarekin hasteko, berriz: egituraren aldetik, Scope formatuaren erabilera azpimarra dezakegu –agian, *Manhattan*-etik ez du formatu hau erabili–; pertsonaiei dagokienez, pertsonaia nagusia hogeita gutxi urteko idazle komiko bat da eta Allenek aktore moduan egin izan duen pertsonaiarekin zerikusi handia du. Allenek, alderantziz, nahiz eta *Todo lo demás*-en aktore lanetan ere aritu, eta

interpretatzeko era eta erabiltzen dituen keinuak betikoak izan, egiten duen pertsonaia nahiko desberdina da, eta filmari ohikoa den baino tonu ilunagoa ematen dio. Allenek idazle gaztearen aholkulariaren rola egiten du, eta gaurko munduan inposatzen ari den moralak kutsatuta dagoen deabru intelektual baten erara, gaztearen jokatzeko moduan nahiko eragin kaltegarria izango du. Pertsonaia honen bitartez Ameriketako Estatu Batuetako gizartea jasaten ari den momentu kaotikoa aditzera ematen du: berekoia da (urte askoan izan duen agente artistikoa uztera bultzatzen du), mesfidatia ere bai, suarmekin obsesionatua dago eta paranoiko samarra ere bada.

Osagai horiekin, Allenen unibertsoari fidela den film bat daukagu, bere ohiko arazo eta zalantza gehienak agertzen dira, eta alde horretatik, komedia sentimental polita dugu, baina beste aldetik, Allenek egiten duen pertsonaiaren bitartez, filmak nahiko tonu maltzurra eta pixka bat etsigarria hartzen du.

ANTONIO ZABALA

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Apartamentua salgai. 40m2. Berrituta. Sukalde-egongela, bi logela eta bainugela. Sukaldea eta bainugela erabiltzeko gertu. Erdialdean. 943 76 63 38 edo 647 56 67 96.

Aretxabaleta. Etxebizitza salgai erdialdean. 80 m2. Hiru logela, egongela, sukaldea, bainugela eta hall-a. Gela guztiek kanpora ematen dute. Gas naturaleko berogailua. Berehala sartzeko gertu. Deitu 16:00etatik 20:00etara. 627 34 92 27.

Arrasate. Erdialdean atikoa salgai. Guztiz berrituta. 626 53 56 30.

Arrasate. Etxea salgai Santa Marina kalean. Hiru gela, egongela. sukaldea, komuna eta sotoa. Olatz. 619 08 90 42.

Arrasate. Etxebizitza salgai Gorostiza auzoan, Malvinetan. 90 m2. Erdi jantzita. Garajea. Ganbara. 630 05 00 39.

Arrasate. Etxebizitza salgai Santa Marina kalean. Hiru logela, egongela, bainugela, sukaldea eta sotoa. Olatz. Edozein ordutan deitu. 610 08 90 42.

Bergara. Angiozarren Munibe etxea salgai. Telefonoa: 946 58 30 25.

Elgeta. Etxebizitza salgai. Bigarren solairuan. Igogailua dauka. 946 81 71 97.

Eskoriatza. Marulanda auzoan etxea salgai. Interesatuek dei egin Juan Luisi. 636 49 46 90.

Somo (Kantabria). Etxebizitza salgai. 80 m2. Bi logela, sukaldea, egongela, terraza, garajea eta trastelekua. Badiako bista zoragarriak ditu. Nekane. 605 74 26 60.

103. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Etxebizitza ematen da errentan Araba ibilbideko 20. zenbakian. 943 71 44 96.

Aretxabaleta. Etxebizitza ematen da errentan. 943 79 57 37.

Arrasate. Logela ematen da errentan. 620 51 34 25.

Benidorm. Apartamentua emango nuke errentan. 2 logela. Hondartzatik gertu. 630 41 84 65.

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan erdialdean. 636 46 56 41.

Bergara. Zubiaurre kalean etxea emango nuke errentan. Adrian. 943 76 71 93.

Bergaran. Erdialdean etxebizitza ematen da errentan. Deitu aste barruan 14:00etatik 16:00etara. 636 46 56 41.

Donostia. Otsailetik ekainera errentan ematen da etxebizitza Amara auzoan. Lau lagunendako da. Lau logela, egongela, sukaldea eta bi komun. 500 euro hilabetea. Olatz edo Ainara. 656 75 72 12 edo 646 33 92 23.

La Barrosa-Chiclana (Cadiz). Apartamentua errentan. Leku zoragarria. Hondartzatik oso-oso gertu. Gauez deitu. 616 14 65 54.

104. ERRENTAN HARTU

Antzuola. Etxe bat hartuko nuke errentan. 610 97 49 68.

Bergara. Etxebizitza edo apartamentua hartuko nuke errentan. 620 98 49 27.

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Beste batzuekin batera etxea osatuko nuke edo logela bat errentan hartu. Igor. 669 28 05 30.

Arrasate. Erguin auzoko etxe baten bi gela alokatzen dira. 639 81 94 33.

Arrasate. Etxea osatzeko pertsona bat behar dugu. Joseba. 607 81 64 74.

Arrasate. Neska baten bila gabiltza etxebizitza osatzeko. 619 59 18 35.

Bergara. Etxea osatzeko pertsona bat behar dugu. 635 70 49 74.

Eskoriatza. Logela bat hartuko nuke errentan. Amaia. 696 72 69 25.

Oñati. Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Amaia. 696 72 69 25.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Aretxabaleta. Garaje itxia salgai Araba ibilbideko 27. zenbakian. 20m2. 943 79 69 83.

Aretxabaleta. Garaje itxia salgai. Araba ibilbidea 27. 20m2. 943 79 69 83.

Aretxabaleta. Garaje itxia salgai. Lausita 16. Beheko solairuan dago. 27m2. Deitu 20:00ak eta 22:00ak artean. 943 53 38 38.

Aretxabaleta. Herri erdialdean garaje itxia salgai, 18.000 eurotan. 609 76 16 86.

202. EROSI

Bergara. 17 metro koadro inguruko garajea erosiko nuke San Lorentzo kalean. 943 76 17 98.

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Garaje itxia emango nuke errentan Arimazubin, Unibertsitatearen aurrean. 943 79 53 56.

Arrasate. Kontzezinon garaje itxia ematen da errentan. 943 79 55 20.

3/ LOKALAK

301. SALDU

Antzuola. 112 m2 dituen garaje edo lokala salgai. Iluntzean deitu. 943 78 71 85.

Arrasate. 36 m2-ko lokala salgai. Komertzio moduan erabiltzeko gertu. Leku oneran. Prezio negoziagarria. Deitu 15:00etatik 15:30etara eta 22:00etatik 22:30etara. 656 75 52 28.

303. ERRENTAN EMAN

Bergara. Lokala errentan ematen da Barruti poligonoan. 175 m2. 943 76 55 29.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Emakume euskalduna behar da, goizez umea zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 943 77 19 98 edo 645 71 42 98.

Arrasate. Emakumea behar da umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. 666 15 58 15.

Arrasaten. Emakumea behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Telefonoa: 666 15 58 15.

Bergara. Emakume euskalduna behar da, goizez umea zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 680 32 10 06.

Bergara. Emakumea behar da umeak zaintzeko, arratsaldez. 943 76 19 27.

402. ESKAERAK

Arrasate. Emakume euskalduna gertu etxeko lanak egin eta umeak edo nagusiak zaintzeko. 659 82 75 18.

Arrasate. Emakumea gertu etxeko lanak egiteko (interina) eta umeak edo zaharrak zaintzeko. 660 78 00 73.

Arrasate. Mutil atzerritarra gertu pertsona nagusiak zaintzeko, sukaldean laguntzeko edo garbiketak egiteko. Aurel. 666 83 21 95.

Bergara. Emakumea lanerako gertu. Atariak garbitzen edo etxeko lanak egiten. 696 84 19 51.

Bergara. Eraikuntzan esperientzia daukan 37 urteko gizona lanerako prest. 661 22 51 49 edo 666 38 78 66.

Bergara. Gabonetan lan egingo nuke. 943 76 08 76.

Bergara. Gizonezko bat zaharrak zaindu edo bestelako lanak egiteko gertu. 654 07 39 95 edo 600 01 82 76.

Bergara. Neska gertu etxeak garbitzeko, eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Ordutegia: 15:00-19:00. Astebururetan egun osoa. Deitu. 660 91 94 23.

Bergara. Neska gertu, orduka, etxeko lanak egiteko, eta bulegoak edo atariak garbitzeko. Deitu. 943 76 44 07.

Debagoiena. Edadetuak edo umeak zainduko nituzke aste barruan. 679 74 00 36.

Debagoiena. Taberna edo jatetxeren baten zerbitzari lanak egingo nituzke aste barruan. 679 74 00 36.

Emakumea gertu edozein lan egiteko: zaharrak zaindu, tabernan lan egin, etab. 620 51 34 25.

403. BESTELAKOAK

Arrasate. Taxi-lizentzia salgai. 652 72 26 92.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Arrasate. Kontabilitateko eskola partikularrak hartuko nituzke. 680 62 19 07.

Oñati edo Bergara. Alemaneko eskola partikularrak hartuko nituzke. Maila ertaina dut. Deitu 20:00etatik aurrera. 630 13 08 92.

502. EMAN

Arrasate. Behar bereziak dituzten umeendako laguntza eskolak emango nituzke. 635 70 88 88.

Haurren tratamendu logopedikoaren inguruko (lengoaiaren ebaluazioa, lengoaiaren ulermena eta adierazpena, dislexia eta dislalia) eskolak ematen dira. 943 78 18 83.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Citroën ZX Turbo Diesel autoa salgai. Ondo dago. 616 56 02 89.

Citroën AX 1.5 diesel autoa salgai. SS-AW. 943 76 73 10.

Fiat Ducato TD autokarabana salgai. 50.000 km. Berriberria dago. 609.15.36.52. 609 15 36 52.

Ford Escort 1.8 autoa salgai. 16 v eta 166.000 km. 1992koa. 628 09 03 29.

Honda CDR 600 motoa salgai, 1989koa. IAT (ITV) gainditua 2005era arte. 1.500 euro. 656 75 35 86.

KTM 200 EXC motoa salgai. 2001ekoa. 660 69 85 15.

Nissan Patrol autoa salgai. 6 zilindro. 3.000 euro. 696 21 25 13.

Opel Frontera autoa salgai. Istripua edukitakoa da. Piezak erabiltzeko ditu. Aukera paregabea. Deitu 17:30etik 22:00etara. 605 73 75 30.

Opel Vectra dTi Caravan autoa salgai. Estra guztiak. 627 93 09 42.

Peugeot 306 autoa salgai. Urdin metalizatua. Lau urte ditu eta 85.000 kilometro. 8.000 euro. 943 76 45 01.

Peugeot 306 XSDT autoa salgai. Urdina. Hagunak. Aleroia. Pioneer musika ekipoa. 1999koa. Ondo dago. 7500 euro. 606 46 24 86.

Piaggio Zip motoa salgai. 49 cm3. Lau urte. 2.500 km. Motoa beti garajean gorde dut. 600 euro. 943 79 38 58 edo 629 42 01 10.

Quad motoa salgai. Kawasaki Mojave 250. Atzerako martxarekin. Matrikulatua. Egoera onean. 3.000 euro. 659 77 18 57.

Renault 11 autoa salgai. BIAN. Erosleak jartzen du prezioa. 686 48 10 68.

Renault Clio 1.9 diesel autoa salgai. Urdin iluna. Sei urte. 85.000 km. 4.000 euro. 615 71 65 38.

Renault Clio 1.9. diesel autoa salgai. Sei urte. 85.000 km. 4.000 euro. 615 71 65 38.

Renault Laguna autoa salgai. 1,9 DGI. 120 zaldi. 630 90 71 67.

Renault Megane 1.6. 16 v autoa salgai. 2000koa. 68.000 kilometro. Bost ate. Lau aire-zaku. ABS balaztak. HI-FI bolantean. Oso ondo dago. 649 31 15 98.

Tata Gran Telkoesport autoa salgai. 58.000 Km. SS-AZ. Mercedes motorra. Merke. 639 40 35 69.

Volkswagen Golf GTI autoa salgai. 3. belaunaldia. Prezio merkea. 647 37 01 96.

VW Golf autoa salgai. Gasolina. SS-W. 943 76 73 10.

Yamaha Virago 535 motoa salgai. 2.250 euro. Oso ondo dago. 647 97 82 68.

Yamaha XJ 600 Diversion motoa salgai. Bost urte. 32.000 km. 943 53 39 26.

602. EROSI

Mendiko motoa erosiko nuke. Montesa, Vultaco edo Ossa markakoa. Berdin du zelan dagoen. 656 75 76 98.

7/ ANIMALIAK

702. EROSI

Artzain-txakur alemana erosiko nuke. Gaztea izan dadila. 619 45 97 46.

703. EMAN

Txakurkumeak. Hiru artzain txakur jaio berri ematen ditugu. Deitu iluntzeko 20:00etatik 21:00ak bitartean. 943 76 35 58.

704. BESTELAKOAK

Aurkitu. Artzain txakurra aurkitu dut Antzuolan. Jabeak dei dezala zenbaki honetara. 943 76 21 85.

Galdu. Katua galdu dut Bergaran, Masterreka inguruan. Lepokoa darama, kriskitin eta guzti. 943 76 22 56.

Oñatin artzain txakur zuria galdu da. "Xarpa" izena dauka. 943 78 28 55.

Txakurra galdu da Bedoñan (Arrasaten). Txikia eta marroi kolorekoa. Buru gainean, ilemotots horia. 943 71 18 81.

Asto ar ederra prezio onean salgai. Deitu 18:00etatik aurrera (Oskar). 650 86 76 19.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Akordeoia salgai. Erabili barik. 400 euro. 943 79 38 58 edo 629 42 01 10.

Bideokamera berria saltzen dut, Panasonic etxekoa. 250 euro negoziagarri. Deitu. 661 22 51 49 edo 666 38 78 66.

Kafe-makina salgai. Compak etxekoa. Egoera onean. Prezio interesgarria. 943 79 56 42.

Lursaila salgai. 10.000 m2. Nekazaritza lanetarako erabiltzeko modukoa. Ura eta argindarra jartzeko aukera. Aretxabaletatik bi kilometrora. 609 36 73 47.

Ordenagailua salgai. Genuineltel Pentium Processor PC. 32 MB RAM, teklatua, sagua, monitorea, modema eta bozgorailuak. 150 euro. Deitu gauez. 615 73 45 53.

Oñati. Lursaila salgai. Etxebizitza egiteko aukera dago, nekazaritza ustiatze bat izanez gero. Ura, bidea eta txabola ditu. 625 70 40 49.

Pendrive markako 128MB-ko USB FLASH disko gogorra salgai. Estreinatu barik. Tamaina: 85 x 28 x 15 mm. Pisua: 18 g. 55 euro. 655 71 45 55.

Pianoa salgai. Schimmel marka. Ia berria. Deitu 20:00etatik aurrera. 943 79 19 64.

Pultsometroa salgai. Polar PC Coach marka. 655 72 43 64.

Trikitia salgai. Pigini marka. Lau ahots. Beltza. Oso ondo zainduta. Deitu 12:00-13:30 artean. 943 79 46 16.

Tronboia salgai. Holton markakoa. 676 78 37 65 edo 943 76 25 97.

802. EROSI

Bergara. Proiektua martxan jartzeko hiru hektarea lur erosiko nituzke; batuta edo sakabanatuta. Bat, behintzat, laua. 605 74 45 03.

805. TRUKATU

Nintendo 64 kontsolaren jokoak trukatzeko gertu nago. 20:00etatik aurrera deitu (Aitor). 943 79 66 38.

806. GALDU

Aretxabaleta. Abenduaren 1ean trikitixa jotzeko partiturak zituen karpeta galdu nuen. Izena dauka: Maddi Iregi, trikitixa. Topatu duenak eroan dezala Brikolan dendara.

Bergara. Umeendako txano urdin bat galdu nuen azaroaren 3an. Norbaitek aurkitu badu dei dezala, mesedez. 943 76 35 42.

Bergara. Urrezko eskumuturrekoa galdu zuen neskatila batek azaroaren 17an. Koloretako hiru bola txiki ditu. 656 71 96 94.

Urrezko belarritakoa galdu dut Arrasaten, Aldai eta kiroldegia bitartean. Hiru harribitxi txiki ditu. Eskertuko da. 943 79 25 15.

9/ HARREMANAK

903. DEIAK

Reggae taldea. taldea osatzeko jendea behar dugu. Gitarra, baxua eta bateria jotzaileak baditugu; hortik aurrera, edozein musika tresna onartuko dugu, edo abesla ria. 617 69 63 53.

Iragarki sailkatuak

1. ETXEBIZITZAK
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

2. GARAJEAK
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

3. LOKALAK
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

4. LANA
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

5. IRAKASKUNTZA
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

6. MOTORRA
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

7. ANIMALIAK
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

8. DENETARIK
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

9. HARREMANAK
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

10. RELAX

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 76 92 71

sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 12 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

EROSI INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

BERGARA / Etxebizitzak salgai
- Zubiaurre. 81 m². Bertan bizitzen hasteko gertu.
- Zubiaurren duplex txikia. Berrituta.
- Zubiaurre. 60 m². Berrituta.
- Osintxun etxebizitzak salgai.
- Bolu. 75m². Oso egoera onean.

BERGARA / Lokalak salgai eta errentan

BERGARA / Garajeak salgai eta errentan

BASERRIAK
- Elosu. 600m². Oso eguzkitsua.
- Osintxun 400 m² + 9 hektarea. Pinu eta fruitarbola ugari.
- Angiozarren 917 m². Oso egoera ona.
- Soraluze, Ormaiztegi, Zegama, Legazpi.

ANTZUOLA / ETXEBIZITZAK SALGAI
- Sagasti auzoa. 90m². Etxebizitza berria.
- Buztinzuri. 40m². Berrituta.

ARRASATE

LANGILE TALDE KUALIFIKATUA GERTU DEBAGOIENEAN AITON-AMONAK ETA EZINDUAK ZAINTZEKO.

Baita enpresak, eskolak eta bestelakoak garbitzeko ere.

Eskatu aurrekontua .

606 56 10 36

LAN ESKAINTZA

Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatibak behar du:

MAKETATZAILEA

Baldintzak:
- Euskaraz jakitea.
- QuarkXPress, Photoshop eta FreeHand programak ondo ezagutzea.
- Esperientzia izatea.

Interesatuok bidali curriculuma helbide honetara:
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
Nafarroa etorbidea 2
20500 ARRASATE

edo posta elektronikoz:
admi@goiena.com

Curriculumak aurkezteko azken eguna:
2004ko urtarrilaren 7a

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ROTUDENAK Koop. E.
errotuloak
zorionak
arrasateN
www.rotudenak.com

AIPAGARRI

Jesus Atxa

ARETXABALETA



Eusko Ikaskuntzak ematen duen Manuel Lekuona saria irabazi du. Jesus Atxa 1920an jaio zen Aretxabaletan, baina alde batetik bestera ibili da: Amerika, Elorrio, Bilbo... Ikastolen mugimenduen sortzaileetakoa, Iruñeko San Fermin ikastolako zuzendaria izan zen (1970-1984).

Alberto Elkoroiribe

BERGARA

Ezizenez *Barruti magoa*, sari garrantzitsu bat irabazi berri du; hain justu ere, Bizkaiko Ilusionismo Elkarteak banatzen duen Pablo Castejon lehiaketako lehen saria. Bizkaiko eta Nafarroako beste mago batzuen artean lehiatu zen eta bergararrak irabazi zuen lehen saria.

Inazio Irizar

OÑATI

Oraintsu aurkeztu du azken liburua, *Empresarios singulares. Cuatro testimonios, una experiencia cooperativa* izenekoa. Liburuan jasotzen da, besteak beste, MCCko lau presidenteen –Jose Maria Ormaetxea, Javier Mongelos, Antonio Cancelo eta Jesus Catania– iritziak.

Joanes Arana Cagigas
Aramaio • Abenduaren 10a • 4,030 Kg. Gurasoak: **Mikel Arana** (Aretxabaleta) eta **Pili Cagigas** (Arrasate). Argazkian, umea amama Arantzarekin.

Enaitz Ugarte Elortza
Oñati • Abenduaren 10a • 3,230 Kg. Gurasoak: **Rafa Ugarte** (Oñati) eta **Lierni Elortza** (Oñati). Argazkian, jaioberria etxekoez inguratuta.

Nahia Jimenez Molina
Aretxabaleta • Abenduaren 19a • 3,100 Kg. Gurasoak: **Francisco Jimenez** (Aretxabaleta) eta **Yolanda Molina** (Aretxabaleta). Argazkian, Naia aitaren besoetan.

Igor Albeniz Arana
Bergara • Abenduaren 20a • 3,035 Kg. Gurasoak: **Migel Albeniz** (Bergara) eta **Aintzane Arana** (Bergara). Argazkian, Igor gurasoekin batera.

Eider Arizmendi Soiro
Eskoriatza • Abenduaren 21a • 3,700 Kg. Gurasoak: **Martin Arizmendi** (Eibar) eta **Amaia Soiro** (Eibar). Argazkian, Eider jaioberria amaren besoetan.

Xabier Garcia Aranzadi
Aretxabaleta • Abenduaren 21a • 3,620 Kg. Gurasoak: **Jabi Garcia** (Aretxabaleta) eta **Anabel Aranzadi** (Aretxabaleta). Argazkian, Xabier jaioberria amaren besoetan.

HILDAKOAK

Pedro Alonso Simal. Aretxabaletan, abenduaren 6an. 58 urte.

Casiano Belategi Arriola. Aretxabaletan, 16an. 69 urte.

Dolores Saez de Ibarra Molinillo. Arrasaten, 17an. 89 urte.

Vitorino Egiara Jausoro. Arrasaten, abenduaren 19an. 87 urte.

Maria Aranburu Biain. Oñatin, abenduaren 19an. 71 urte.

Maria Soledad Jauregi Insausti. Bergaran, 22an. 84 urte.

Maria Luisa Garcia. Eskoriatzan, 23an. 70 urte.

Peli Etxeberria Galdos. Bergaran, abenduaren 23an. 87 urte.

Juan Elizegi. Oñatin, abenduaren 23an. 93 urte.

URTEURRENA

Agustin
Zugasti Ribera

Lehen urteurreneko meza bihar, zapatua, abenduak 27, 19:30ean, **Aretxabaleta**ko parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

GOIENKARIA
Astero 21.500 etxetan.
Eskelen prezioa: 75 €.

Orain
Debagoiena
esku-eskura
Goiena.net
Debagoieneko ataria Interneten
zure herriko albisteak sarean • eztabaidak • agenda • ...

HITZGEZIDUNAK

Luma



		Guztiei dagokiona / Arabako udalerria		* Izena / Utik !		Areago	
		Ote-mota gogorra / Kanpo					
Ugari / Lantegi		Pluralaren marka / * Deitura			Suari dario-na / Ganga erdies-ferikoa		
							Azalean dagoena
Egiptoko jainkoa / Eserleku luzea			Rutenioa / Harrizko ezkutu			Lehen boka-la / Zakur	
				Alaitasun / Dago			
Zintzo	Kezka, axola / Urratsak emanez						
						50 / Leku	
Iratzea / Infin., oneratu				Sarrera / Urrea			
					... egin, era-bat ase / Atzizki feme-ninoa		
Etruriar / Zuhaitz mota							
				Gipuzkoako herria			

BILABILA7

UMOREGIROAN/ Pedro Zelaia

Pedro Zelaiak argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

TRAJIA ENKARGATZEN

Markiegirengana juan dira bi gazte trajia enkargatzera. Bata txikixa zan; bestia aundixa. 3.000 pezeta balio zeban trajiak. Txikixak diño:

- Zu, baiña, nik orren tela erdixa biot. Neri merkiago eiñ biestazu.

Eta Markiegik diño:

- Trajia, trajia dok. Baiña, bueno, txaleko barik nai bok 1.500 pezeta.

- Eiñ ba txaleko barik.

Urten dabe biak dendatik eta luziak esatetsa:

- I, baiña, pagatzeko asmorik ez, eta zertan ibili diskuziñuan?

- Berak gitxiago galdu deixan.

INOXIDABLIA

Madrillen bizi zan plaentxiar bat etorri zan beiñ batian Eibarko fabrika batera eta bai "pedido" on bat egin be. Oso lagun egin zan gure eibartarrekin.

Andik bost bat urtera etorri da berriz, eta bai arritxu be eibartarren gaztetasuna ikusitxa. Esatetsa eibartarrari:

- I, baiña, ointxe bost urte moduan ago. Zelan arreglatzen aiz olan konserbatzeko?

- Eibartarraren erantzuna:

Itxura danez, ez bakarrik nere produktuak, neu be inoxidablia nok.

EZETZASMATU!

Estepan Plazaola

Zela idatzi Tomas santua aipatzerakoan?

Joan zen astelehenean, abenduaren 22an, Arrasaten Santamasak izan dira. Bilbon eta Donostian, ostera, Santo Tomasak izan ziren bezperan, abenduaren 21ean. Santua aitatzerakoan zela esan beharko ote genuke: Santamas, Santo Tomas... Euskaltzaindiak orain dela gutxi eman du Santu izenak izendatzeko moduari buruzko araua. Asmatuko ote zenuke ondoko formetan zein proposatu duen onargarritzat?

- Santamas.
- Santo Tomas.
- San Tomas.
- Deun Tomas.

Erantzun zuzena: San Tomas.

SOLUZIOAK



ASTEKOHOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkartea

ARIES
martxoak 21-apirilak 21

Zure ideiak eta egiten dituzun pausoak zorrotz defendatzen dituzu, eta ez duzu onartzen oker ibil zaitezkeela. Horrek arazo bat baino gehiago ekarriko dizu bikotekidearekin. Bestalde, pasio bila irtengo zara bikotekidearekiko harremanetik kanpo.

TAURUS
apirilak 22-maiatzak 21

Eztabaida biziak izango dituzu lanean, oraingo lan baldintzekin ez zaude-eta batere pozik. Azter ezazu egoera objektiboki eta ondo pentsatu esan behar duzuna. Bestalde, dermatologoarengana joan beharko duzu, hainbat erupzio kutaneo irten zaizkizu-eta.

GEMINI
maiatzak 22-ekainak 21

Jendeak ez zaitu ulertzen, eta horregatik, konfiantza osoko lagun batekin bakarrik egon gura izango duzu, gainerakoengandik ihesi.

CANCER
ekainak 22-uztailak 22

Argi ibili ingurukoen jokaerengatik zer esaten duzun, ondo azter itzazu egoera guztiak konklusioak atera aurretik. Gertukoengan konfiantza handia izan behar duzu, eta ez egin kasurik txutxumutxuei.

LEO
uztailak 23-abuztuak 22

Gastuei aurre egiteko diru estra bat izango duzu. Bestalde, lanean ardura gutxiago izango dituzu, eta denbora luzeagoz egon ahal izango zara familiakoekin. Azkenik, zaindu dieta.

VIRGO
abuztuak 23-irailak 22

Lagunek inbidia handia izango dizute; izan ere, zuk beti ligatzen duzu, eta haiek ez. Bestalde, atzerritik berri onak helduko zaizkizu.

LIBRA
irailak 23-urriak 22

Ez izan hain zorrotza besteon hanka-sartzeekin eta akatsekin, eta ezer kritikatu aurretik, pentsa ezazu zuk zeuk ere egiten dituzula hanka-sartzeak. Bestalde, higiezinetan eginda zenituen inbertsioek ez dute fruiturik emango.

SCORPIUS
urriak 23-azaroak 22

Lanean ardura eta erantzukizun handia duzu, eta ezin izango duzu denbora luzerik pasatu familiakoekin. Horrek egonezina sorraraziko dizu.

SAGITTARIUS
azaroak 23-abenduak 21

Lanean aukera polita izango duzu gorantz egiteko; izan ere, hainbat proiektuk fruituak emango dituzte.

CAPRICORNUS
abenduak 22-urtarrilak 20

Kexuak eta bestelakoak norberak azaldu behar ditu; hau da, ez erabili inor horiek azaleratzeko. Horrela, emaitza hobeak lortuko dituzu.

AQUARIUS
urtarrilak 21-otsailak 20

Zure bizitzan nagusi diren kaosa eta desordena atzean uzteko garaia da, berregituratu egin beharko duzu daramazun bizimodua. Eta lanetik hasi beharko duzu egituraketa hori egiten, ekonomikoki gauzak ez dabiltza-eta batere ondo.

PISCIS
otsailak 21-martxoak 20

Zorizko jokoetan dirua edo sariren bat irabaz zenezake; baina argi ibili! Ez galdu txartelak edo frogagiriak.



GIPUZKOAKO
ASTROLOGI ELKARTEA

TXIKILANDIA 2004

Arrasaten
Musakolako kiroldegian
Urtarrilaren
2,3,4 eta
5ean

TXATXIKIPURDI
ANTOLATZAILEA

iKER
SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK
SUKALDE ERAKUSKETA
Udala Plaza, z/g • ARRASATE • Tel.: 943 79 00 43
BAINU ERAKUSKETA
Zarugalde, 52 • ARRASATE • Tel.: 943 79 99 42
FAGOR

BABESLEA
ARRASATEKO UDALA

Ordutegia:
2-3 eta 4ean:
11etatik 14etara
16etatik 20etara
5ean:
11etatik 14etara

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2003ko abenduaren 26a

JASONE OSORO/ 'ASTEON' TELEBISTA ASTEKARIKO ZUZENDARIA

"Telebistak konnotazio txarrak hartu ditu, eta horiei buelta eman nahi diegu"

LEIRE KORTABARRIA

Kazetari eta idazle moduan ezagutu dugu, baina abendutik aurrera, Topagunea elkartearen *Asteon* telebistaren inguruko aldizkariko zuzendaria dugu Jasone Osoro elgoibartarra. Durangoko azokan aurkeztu zuten *Asteon*.

I.A.

***Asteon*-en zero alea aurkeztu zenuten Durangoko azokan. Zelakoa izan zen esperientzia?**

Gustura geratu gara. Zero zenbaki bat, argitalpen guztiendako, proba bezala ateratzen den zenbakia da. Gure helburuak ziren, batik bat, lan funtzionamendua ikusi, etorkizunari begira zeri eutsi eta zer findu nahi genuen begiratu... Balio izan zigun gure bertuteak eta akatsak aurkitzeko.

Baina balorazio orokorra zein izango litzateke?

Guk nahi dugun produktutik oso gertu dagoen aldizkaria atera genuen. Produktu txukuna eta duina egin genuela uste dut.

Jendearen harrerari dagokionez, zer diozu?

Durangoko azokan aurkeztu genuen zenbakia, eta egia da hara jende asko inguratzen dela, baina gure publiko guztia ez zegoen han. Banaketa ez zen joan guk nahi bezala. Guk publiko zabal batengana iritsi nahi dugu, eta Durangoko azokan ez genuen horiengana guztiongana iristerik lortu. Hortaz, banaketa bide berriak jorratu eta finkatu nahi ditugu.

Hala ere, Azokaren bidez *Asteon* ezagutzera eman genion publiko zatiak oso ondo erantzun du. Esan digute aldizkari atsegina dela, irakurterraza...

Zero zenbakitik lehenengora berritasunik aurkituko dugu?

44 orritik 48ra pasatuko gara. Bestalde, atal berri batzuk zehazten ari gara.

Noiz jasoko dugu, bada, lehenengo zenbakia eta zenbateko tirada izango du?

Urtarril bukaerako egubakoitz batean izango da; 23an ateratzea da gure asmoa. Bestalde, 60.000 aleko zabalkundea izango du.

GOIENKARIArekin eskuratuko dugu debagoiendarrok. Euskal Herri osoan ere, tokian tokiko aldizkariokin banatuko da, ezta?

Bai. Baina bide hori erabiliz gero, jende askok ez luke *Asteon* eskuratzeko aukerarik, eta leku jakin batzuetarako beste banaketa bide batzuk lantzen ari gara. Adibidez, Iparraldean, Hegoaldeko hiriburuetan...

Zure iritziz, zergatik ez dugu telebista-prentsa euskaldunaren tradiziorik?

Euskarazko hedabideetan gauza asko dago egiteko; hedabide guztiak berriak dira. Hedabide orokorrak bagenituen, baina aldizkari espezializatuak falta ziren, salbuespenak salbuespen. *Asteon* eraberritze horren barne dago. Nire iritziz, aberasgarria izango litzateke honen ondoren aldizkari tematiko gehiago ateratzea Euskal Herrian.

Azalekotzat zaituztenei zer esango zenieke?

Telebistak, azken urteotan, konnotazio negatiboak ditu, zirku antzeko bihurtu da, eta bistaz galdu dugu telebista informatzeko, hezteko eta entretenitzeko jaio zela. Guk telebistaren hiru zutabe horiek berreskuratu nahi ditugu; gutxienez, telebistaren irudi txar horri buelta eman.

"Informazioa, hezkuntza eta entretenimenduaren ardatzak indartu nahi ditugu"

"Asteon'-en zero zenbakia oso produktu duina zen, eta irakurleok oso ondo hartu zuten"

"Urtarrilaren 23an, 60.000 aleko tiradarekin irtengo da 'Asteon'-en lehenengo zenbakia"

LASAGABASTER
www.lasagabaster.com
Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Añai erretegia

Nardeaga 32 / ARAMAIO
945 44 51 01

Eskaintza
- Bataio eta jaunartzeak
- Kintadak
- Karta

Berezitasunak
- Arraina eta okela parrillan
- Etxeko postreak

Egubakoitzetan, zapatuetan eta domeketan zabalik

JATETXE GIDA

Gabon zoriontsu... eta gozoak izateko!

Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58

Eskaintza
- Menua eta karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

Astelehenetan itxita

Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

Eskaintza
- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

Berezitasunak
- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

Astelehenetan itxita

Leku berri jatetxea

Irimo barrena / ANTZUOLA
943 76 60 94

Eskeintza
- Menua eta Karta
- Bataioak eta jaunartzeak
- Kintadak

Berezitasunak
- Bakailaua, kokotxa eta almejekin
- Bildotsa erreta
- Txuletak
- Etxeko postreak

- **Astelehen arratsaldetan itxita**

Taberna-Berri jatetxea

Durana 24-26 / ARETXABALETA
943 79 20 67 / 943 79 49 41
tabernaberri@terra.es

Eskaintza
- Menua
- Enpresa bazkariak
- Ezkontzak, jaunartzeak eta bataioak
- Bi jantoki: 80 eta 150 lagunendako

Berezitasunak
- Bakailao entsalada epela
- Oreina Oporto saltsan
- Arrain parrilada

Torrekua jatetxea

Ibargarai 37 / BERGARA
943 76 50 99

Eskaintza
- Eguneroko menua
- Karta
- Kintadak
- Bataio eta jaunartzeak

Berezitasunak
- Batik bat arraina
- Itsaskia
- Txuletak

Unzueta jatetxea

Zabola auzoa / ARAMAIO
945 44 50 95

Eskaintza
- Eguneroko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

Berezitasunak
- Parrilla: Okela eta arraina
- Etxeko postreak

Egunero zabalik

Zotz jatetxea

Zubillaga auzoa 1 / OÑATI
943 78 35 45

Eskaintza
- Eguneroko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

Berezitasunak
- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

Igandetan itxita

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

Argitaratzailea: Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 Arrasate
Egoitza nagusia: **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
Ordezkaritzak: **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
Aretxabaleta 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
Publizitatea: **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 21.500 ale.
HARPIDETZA: **943 79 21 00** • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

EGUBAKOITZA, 2003ko abenduaren 26a

Atzeskua

LEIRE KORTABARRIA

Aitor Arregi/ Zinema ekoizlea

Goya sarietarako izendatu dute zuk zuzendutako lan bat... Zelan?

Oso-oso pozik. Ezuste handia izan zen; izan ere, aurten, lehia inoiz baino gogorragoa zen. Sari banaketara ere joango gara beharbada.

Batek esango zuen hona iritsiko zinetela enpresa sortzerakoan!

Bai. Orain bi urte sortu genuen Moriarti ekoizpen etxea Sarobeko ikastaroan elkar ezagutu genuen lagun batzuek. Film laburrak egiten hasi ginen; handik dokumentaletara pasa ginen... Jendeari gustatu zitzaizkion gure filmok, eta enpresa gero eta handiagoa egin zen.

Laguntzarik jaso duzue ala bakarrik egin duzue bidea?

Laguntza gehiago egon zitezkeen euskal zinemagintzarendako. Sektorearen kexu orokorra da. Ez dago zinema industria finkatu bat, batez ere irudi errealeko filmei dagokienez; animaziozkoetan, ordea, Goya sariotarako izendatutako hiru film euskaldunak dira, eta horrek zer edo zer esan nahi du.

Aurkeztu iezaguzu Goya sariotarako proposatu duten lana...

Glup izenburua du eta animaziozko film labur bat da. Publiko orokorrari zuzendutako abenturetako film bat da, eta birziklapenaren aldeko mezua zabaltzen du. Protagonista Alizia izeneko neskato bat da; zabortegi handi batera erortzen da eta zabor ona eta zabor txarra aurkituko ditu bertan. Tartean, Glup izeneko ikertzailea egongo da. Guztion artean, Komun Jauna tiranoaren aurka borroka egingo dute...

Film laburra da, baina ziur lana benetan luzea izan dela.

Bai. Animazioarekin pazientzia handia behar da; irudi errealarekin lanean zabiltzanean baino handiagoa. Filma egiteko prozesuak ia urtebete hartzen du; lasaitasunez hartu behar duzu, hortaz, batez ere soinua ipintzeari dagokionez: pausoak, ateak...

Zu bakarrik ez zinen, bada, horretaz guztiaz arduratuko!

Ez; animazioa Dibulitoon Irungo enpresak egiten du. Sormen arloa da gure lan esparrua. Ni neu edukien zuzendaria izan naiz: haria, soinu-banda... prestatzea. Iñigo Berasategi lankidea zuzendari teknikoa izan da.

Zinema ekoizpena kanpotik ikusten dugun bezain *animatua* da?

Ez pentsa... Filmatzea egokitzen zaigunean, kanpoan lan egin beharra dago, baina horrek aste pare bat irauten du. Aurretik datorrena eta ostekoa bulegoetan egiten da. Batik bat, bulegoko lana egiten dut.

Moriartiren gaineko filmak zelan jarraituko luke?

Eguneroko lana da garrantzitsuena. Hainbat egitasmo ditugu mahai gainean, eta horiei eutsiko diegu. Orain arteko lan onarekin jarraitu nahi dugu.



"Animaziozko euskal zinema ondo dago; baina irudi errealekoan, ez dago euskal zinema industria finkatu bat"

"Zinema ekoizleon lana ez da uste bezain 'animatua': bulegoko lana da, batik bat"

"Goya sariotarako lehia bizia zegoen, eta oso pozik nago izendapenarekin"

► *Oñati / 26 urte / Goyatarako izendatu dute lan bat*

PIPERRAUTSA

2003

Ez da gozoa izan azkentzen ari den urtea. Betea bai, ez du eman aspertzeko asti handirik. Esango nuke gehiago izan duela txarretik, onetik baino. Bataz beste, urtea egin zait gogorra, eta itogarria giro politikoa zenbait unetan.

Debagoienak udaletan ezagutu du aldaketa nagusia, eta Mankomunitatean. Presentzia handiko alderdia kanpoan utzi du lege bihurriak, eta lehengo orekak hankaz gora gelditu dira. Dirudienez, ez da zubirik eraiki ordezkaritza baliogabetuari sarbidea emateko udal gestioan, eta horrek defizita uzten du urte berrirako.

Bestelako zubiak ari dira eraikitzen ibarrean, galant askoak. Autobidearen zerbitzua Bergararaino iritsi da, zelanbait, eta txikizioa aurretik doa, Arrasatera bidean. Kalteak bistan dira, ea onurak parekoak diren. Eta pentsa beza ibarrak bere etorkizunaz errepide guztiak burututakoan. Lurralde Zatiko Plana askoz gehiago da Urkuluko etxebizitzak baino.

Hortik aurrera, politikaren itolarriak ez gaitu ito, eta urte amaiera aldera arnasa hobeto hartzerik ere izan dugu. Aspaldiko partez, posible ikusten ditut datorren urtean gertakari baikorrak eta urrats onak. Airean dabil usaina. Eta Katalunia hasi da Espainian eragiten. Ohiko astakerien ondoan hasi dira entzuten berba zentzudunak. Oraindik gutxi direlako, estimatuagoak.

Katalanek zizela eta guk mailua, ea 2004an zulatzen dugun horma.

MIKEL IRIZAR

iKER
SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

SUKALDE ERAKUSKETA
Udala Plaza z/g • Tel.: 943 79 00 43
BAINU ERAKUSKETA
Zarugalde 52 • Tel.: 943 79 99 42
ARRASATE

FAGOR